

belke

2005eko IRAILA,
136. ZENB. DOHAINIK

Ixiar etxean



KIROLARI BETERANOAK EMAITZA ONAK LORTZEN

HERRI ALDIZKARIA

Juan Belmonte, 29 behea

tel.: 943 86 15 45

faxa: 943 86 17 42

email: aldizkaria@baleike.com

Argitaratzailea

BALEIKE KULTUR ELKARTEA

email: elkarte@baleike.com

Administrazio batzordea

Xabier Azkue, Gurenda Serrano

Koordinatzailea

Juan Luis Romatet

Kazetariak

Itsaso Ibarra

Maitane Urbietta

Itziar Garate

Izaskun Urbietta

Maitane Agirre

Iure Alzibar

Abelin Linazisoro

Haize Galarraga

Kolaboratzaileak

Miriam Romatet, Dani Carballo,

Belen Golmaio, Joanito Dorronsoro,

Xabier Aranguren, Karmelo Arroiabe,

Gorka Ormazuri, Xabier Aizpurua,

Ibon Aizpurua, Izaga Garzia,

Beñat Fernandez de Arroyabe,

Ihintz Linazisoro, Jon Maia,

Eguzki Agirrezabalaga, Natur Taldea,

Ander Hormazuri, Aitor Manterola,

Imanol Garate, Joseba Esnal

Diseinua eta maketazioa

Roberto Gutierrez

Hizkuntz zuzenketa

Imanol Azkue

Publizitatea

943 86 15 45 tel.

Inprimategia

Antza

Inprimategia

(Lasarte-Oria)

Tirada

1.100 ale

Lege gordailua

SS-405/94

ISSN


1136-8594

Baleikek ez du bere gain

hartzen aldizkarian adierazitako
esanen eta iritzien erantzukizunik.

aurkibidea

librean	4
puntocom	6
orain hamar urte	7
ze berri?	
olarru eguna	8
turismoa	10
komiki ikastaroa	11
elkarrizketa	
ixiar arrizabalaga	12
erreportaia	
musika banda	16
sukaldaritza	19
gure zumai zarra	
joxe elosua zubimendi	20
kirolak	
arrauna	24
xabier osa	26
julian igual	29
josebe zarautz	32
kultura	34
divergentes	
arte	
agenda	38



Liburuaren zozketa!!

Irabazleak:

- Uxua Ostolaza
- Jesus Unanue
- Gorka Zabaleta
- Imanol Azkue

Argitalpen honen edizioko laguntzaile:



Zumaia Udalak



CAJA LABORAL
EUSKADIKO KUTXA



gizarte ekintza



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO



GIPUZKOAKO
FORU ALDUNDIA

"Martini baby"

Aspaldi norbaitek esan zuen bezala, "Guaya izan ala ez izan, hor dago koxka".

Kuestio horrek beti asko kezkatu nau, eta baita inbidia galantak sortu ere. Izan ere, guaytasuna jaiotzatik ekartzen den izaera dela jakin arren, egoskorra naizenez, ez dut etsitzen; horrela, aurtengo nire udararen xedea guaya iza-
tera iristea izan da.

Eta, abuztuaren amaieran han abiatu naiz Nizara, "Martini baby" dioen anuntzioak liluratuta, zeren frantsesak estilo-aren asmatzaileak badira, Rivierako txoko hori nire asmorako ezin hobea iruditu zitzaidan.

Bide luzea egin, iritsi, muturra margotu eta betaurreko beltzak soinean, eta terrazatxo batean "martini rosso bat, silbuplé". Hamar minutu ordaintzen (bate-
tik, txundituta prezioa ikusita, bes-
tetik, propina utzi behar dela jakin arren, eraman ezinik...).

Frantsesa behar bezala hitz egiteko ezinbestekoa den mutur sexia lortzeko ahaleginaren emaitza, nahiko eskasa.

Hondartza: Kosta urdina, urdina benetan, margotuta-
koa dirudi. Baina hondarra non da? Ia 5 kilometrotako

hondartza harrikozkorrez jantzia! Etzanda egotean, bizkarrezurra konkortuta; baina jaiki eta uretaratzera ausartzea? Izugarritzko aldapa pikea eta olatuak kolpeka.


Sartu, hala moduz; irten, atarrapoka. Nork eutsi diezaioke glamurrari eta guaytasunari, lau hanketan lehorreratu ezi-
nik eta bikinia bere lekuan eduki-
tzeko ahaleginetan?

Azken ahalegina: alde zaharre-ko kaleak. Ze kale polit, bizi, kolo-
retsua! Ba hor ere zerbait falta, edo zerbait soberan... Rivierako emakume guay baten azken gehi-
garria besoetan txakur tiki petral bat eramatea da. Guztiek darama-
te, aizue! Nik hiru nexka zaratsatu eraman nituen neurekin, baina ez da gauza bera. Kaleko azokaren batean nire hirurak yorkshire mai-
tagarri baten truke eskaini nituen, baina alferrik!

Kontuak kontu, itzuli gara, eta nire helburuak 2006ko udararako utzi behar. Jada hasi naiz prestatzen "Marbella'06" plana.



Miriam Romatet



dani



Andele bartolo!!



xa2

Kontxako estropaden braustadek irailan sartuta gabiltzala esan ohi digute eta datorrenari begira jartzen gara, udan pasatakoa ia ahaztuta. Kurso hasierako deprea. Ba iada ganbaran gordeta badauzkagu ere, orain bi aste eskas sanbartolomeak izan genituen Oikian. Urtero bezala oikiar eta kanpokoen gozagarri.

Jende asko gerturatu da ekitaldi batzuetara urteroko arrakasta berretsiaz. Umeen egunean pintura tailerra esperimentu jendetsua izan zen eta txokolatea arrapaladan banatu genuen. Munduko kulturen moztorro festan oikiako plaza collage etniko bihurtuta ikusi genuen: jaimazaleak, txatxolindarrak, hawai bonbaikoak, tirantedun retrosexualak, pulpinhodun galegak eta nola ez andele, andele! ohiukatuz kantuan ibili ziren tekilazaleak. Gaueko Tapia eta Leturiaren jardun paregabeari jendez betetako plazak erantzun zion, hik lan eta nik jai betirako geldituko zaigun utopia dela sinestuz. Eta azken arrakasta aipatzekotan igande arratsaldeko herri kirol saioa eta idi probak. Halako mundurik Oikiako plazan!! Iskanbila atera zuten behintzat, adar zorrotzak nonbait errenditu ezineko idi pareak. Ezin dut konprenitu nola erakarri dezaketen hainbeste

jende idi probek. Eta ezin dut konprenitu ezta ere (gaiaz erabat aldatuz), egun horretan bertan Zumaiaiko Paolan irakurri nuen datu bat: Zumaiaiko Udalak 2004 jardunaldia superabitarekin bukatu zuela. Udalak dirua soberan duela eta ez duela gastatzen esan nahi du horrek, ezta? Ba jarri dezatela Oikiara garraio publiko gehiago, edo neguan kultur ekintzak duintasunez egiteko toki eta programazio bat, edo internetera konektatzeko toki publiko bat, edo etxeetara iritsiko den gas naturalaren sarea. Edo behingoz, osatu ezazue oraindik bukatu gabe daukazuen ur sare publikoa, etxe batzuetan iturriko ura lortzeko arazoak izan baitituzte aurtun. Gogoratu, udal batzarkideak: 2005. urtean gaude eta etxeko iturrian ura faltatzea ez dugu onartuko gestio onaren sinonimotzat. Aurtengo kontuak itxi aurretik, badakizue: andele, andele!




MENDI - ONDO c.b.
ELEKTRIZITATEA
Urola Plaza, 21
Tel. 943860074 - 943861569


ARROPADENDA
Itzurun, 1 Tel. 943 143224


METRO
taberna
ogitartekoak
pintxoak
Upela plaza, 7
tel: 943 862620

Ikasturte berriaren atarian



Amaitu dira oporrak eta aurrean dugu ikasturte berria. Baleikekoak lana ahalik eta hobekien egitekotan gara kurtso honetan. Akatsak izango dira, noski, baina nahigabe eginak. Baina zer gertatu ote zen orain 10 urte, 1995eko irail urrun hartan?

Aldizkaria ireki eta hara non aurkitzen dugun Aita Mari ezkerreko begia partxe batez tapatuta duela kexuka. "Egunean zehar momenturik hunkigarrienetako bat goizetan izaten zen, egunsentiarekin batera, Paolaldera begiratu eta itsasoa ikusten nuenean, ederki nabarmentzen baitziren bere barealdi eta haserrealdiak, olatuen aparrak eta motorren joan etorriak. Aspaldian, ordea, harantz begiratu eta... Zestoako harrobiko kare-haitzaren edertasuna. Eta hori ikusteak negargura ematen dit, beste hitzen bat erabiltzearen". Jakina, barra berriari buruz ari zen Mari zaharra.

Zumaiako parroko izandako Asentxio Elustondo elkarrizketatu genuen zenbaki hartan. Emakumeen papera Elizan, antikonzeptiboak, etab. jarri ziren mahai gainean. Euskal Herriko kontuez ere hitz egin zuen Asentxiok. "Herri bat den lurraldeak, bere

nortasuna galdu gabe eta nortasun hori gehiago landuz, hain zuzen, bizitzen du kristau mezua", zioen euskal diozesiaren alde zegoen parrokoak. Setien apezpikuari kritikak puripurian zeuden garai hartan. Horren inguruan iritzi garbia zuen: "Setienen jokaera gertutik eta sakonki ezagutzen duenak ez dezake serioski esan jokaera leiala, kristaua eta jatorra ez denik".

Jende gutxizebilen garai hartan Goiko plazan. Gainbehera horren arrazoiak jakin nahi izan genuen eta horregatik baserritar eta bezeroengana zuzendu ginen. "40 urte bai honera natorrela. Oraingo aldian jendia dobla etortzen zan, diferentzi ederra! Baserritarrez beteta egoten zan plaza, eta orain berriz batez", zioen Pikote baserriko Karmenek. Eta zergatik gainbehera hori? Baserritar batek zioenez, "Gazteek ez dute plazara joateko afiziorik. Orain asko gertatzen da larunbatetan kotxea hartu eta familiak egun pasa joaten direla Pryca eta horrelakoetara. Bertan kotxea bete eta etxera". Inguruko dendetan sumatzen zen krisia. Batzuek agintariei zuzentzen zizkieten kritikak: "Gauza guztiak behean egiten dira, kabalgata... Udalak ez du ezer egiten goialdeko kale hauengatik. Oso polita izango da, baina... Hau gehiago promozionatu beharko litzateke". Urte batzuk geroari zeharo itxuraldatu zen azoka.

Kiroletan, Itxas-Gaineko piraguiestekin topo egiten dugu. Sekulako denboraldia eginak ziren une hartan. Orain mundu mailako figura den Oier Aizpurua lehen garaipenak lortzen hasia zen. "Herrian ahaztuta ditugu; hemendik kanpora, berriz, ezagun bihurtu dira", zioen artikulua. Tamalez, egoera ez da asko aldatu hamar urte hauetan. Lortutako garaipenak eta domina kopurua ikaragarria da, ordea.

Musikaren atalean, "Ezbaikorrak" musika taldea zen hizpide. Felix Llavori zen talde bateria jolea eta berekin jardun zuten hizketan. Pop musikaren apustua egiten zuen taldeak: "Hemen, Euskal Herrian, badakigu nola doan gauza: distortsioak, hitz konprometituak eta musika gogorak du arrakasta. Nire ustez musika mota guztien garaiak dira hauek, baina betikoa gertatzen da. Hemen pop taldeek ez dute inoiz arrakastarik lortu".

Heldu da agur esateko ordua. Hilabete barru elkar ikusiko dugu.



ILEAPAINDEGIA

IRUITZ

San Telmo, 12
Tel. 943 860760



Arantza Aramendi

EGUZKI
G. INMOBILIARIA

Harategi kalea, 15 behea
943 86 22 65 - 609 46 56 37

TOMAS
TABERNA

- APARTAMENTUAK -

- menuak
- plater konbinatuak
- pintxoak eta ogitarteak

E. Gurrutxaga plaza

943 86 19 16

Argazki lehiaketa Baleike.com-en

Uztailleko aldizkarian iragarri genuen bezala, Baleikeren I. udako argazki lehiaketa jarri dugu abian. Hasieran bat bera ere ez zitzaigun heldu, baina pixkanaka, banan-banan hasi ziren iristen. Azkenean, 25 dira lehiaketan parte hartzen duten argazkiak. Batzuk, gehientzuenak, oporretan ateratako argazkiak dira; beste batzuek, berriz, Zumaiako bistak jasotzen dituzte. Argazkiak www.baleike.com web gureko argazki artxiboan "kultura" karpeta barruan daude.

Eta orain zuen txanda da, argazki hauek guztien artean irabazlea erabaki behar baituzue. Horretarako, aurrez aipatutako lekuan sartu eta argazkiei botoa eman beharko diozue. Garrantzitsua da jakitea botoa emateko baleike.com-en erabiltzaile bezala erregistratuta egon beharko dela.

Botoa emateko epea irailaren 31n amaituko da. irabazlearen izena web gunean eta urriko aldizkarian emango dugu jakitera.

Botoa eman ezazue eta zorte on parte hartzaileei!

Baleike.com abiatu genuela urtebete!

Irailaren batean bete zen urtebete, ofizialki Baleike.com abian jarri genuela. Urtebete, jende asko ibili zarete web gunean bueltaka. Jakin nahi zenbat?

Lehen berria abuztuaren lehen argitaratu bagenuen ere, ofizialki irailaren lehen eman genion hasiera Baleikeren abentura berri honi. Onartu beharra daukagu gure hasierako usteak gainditu egin direla zuen harrera onarekin. Mila esker zuei beraz!

Aurten espero ez genuen moduko harrera izan du atariak, eta bisita kopurua oso handia izan da. Hemen duzue urte honetako eboluzioaren informazioa:

Urte osokoak guztira

- * Berriak guztira: 365 (batez besteko, berri bat eguneko)
- * Erregistratutako erabiltzaileak: 144
- * Argazkiak guztira: 315
- * Erakutsitako orrialdeak: 162.944
- * Atzipen kopurua: 859.396,00
- * Transferitutako informazioa guztira: 16,65 GB

Batez besteko datuak

- * Eguneko batez besteko erabiltzaileak: 121,88 (gaur egun, batez beste 180 ibiltzen dira)
- * Eguneko orrialde kopurua: 446,42
- * Eguneko atzipen kopurua: 2.354,51



OSTOLAZA
BURDINDEGIA

Jose M^a Korta Indutrigunea
A1 - 4. Pabilioia
tel.: 943 86 50 68
fax: 943 86 13 45
e-mail: denda@ostolaza.com
www.ostolaza.com

dekorazioa

ALBERDI

696 726188
943 143261

- Eskaiola
- Pladur-a



TXINGURRI

Koop. Elk.

Nekazaritza Injineru Teknikoak

ESTAZIO Kalea, 25 20.750 ZUMAIA
GIPUZKOA Kalea, 33 C 3^a 20.800 ZARAUTZ
(GIPUZKOA)
Tel. (943) 86 07 78 - (943) 14 09 40

Jardinen diseinu
...mantenimendua
Nekazaritza zerbitzuak
Kiral zelaien mantenimendua
Txostenak ...
aholkularitza teknikoak,
Balorazioak



Arrain eta
mariskoak

Barazkiak eta
aurrez prestatutako
jakiak

Zuloaga plaza, 1
Tel. 943862309

Alberdi
Gizonezkoen moda



Erribera kalea, 6
Tel. 861155

GANBARA



juan belmonte, 5 Tel. 943 86 10 57

Zumaia Hotela

Alai Auzategia
20750 Zumaia (Gipuzkoa)
TEL: 943 14 34 41
FAXA: 943 86 07 64

Bigarren Olarru Eguna irailaren 17an

Olagarroarekin prestatutako jakiak dastatuko dira egun osoan zehar

JUAN LUIS ROMATET



Olagarroak (edo olarruak, herri hizkeran ezagunagoa den bezala) eta Zumaia maitasun istorio bat bizi dute aspalditik. Maitasun arraroa, bata bestearengandik ihesi ibili behar izaten baitu bizirik jarraitu nahi badu. Baina hori beste kontu bat da. Gaztelaniazko terminoa (Pulpo) hartu duen elkarte gastronomikoa dugu, baita eskubaloit talde bat ere. Olagarro zoparen lehiaketak antolatzen ditugu, baita olagarroa patatekin jaki preziatu bat balitz bezala jan ere.

Orain urtebete Zumaiaren eta olagarroaren arteko harreman hau ospatzeko, festa berezi batean parte hartzeko deia egin zuen Udaleko Festa eta Turismo Batzordeak. Lehen Olarru Egun hark sekulako arrakasta izan zuen. Eguraldia lagun zela, ehunka lagun etorri ziren 2004ko iraileko egun hartan geurera. Ohitura berri bat edota herria kanpoan ezagutarazteko aukera ezin pasatzen utzi, eta hemen dator berriro ere erroak zabal-zabal dituela Olarru Eguna.

Irailaren 17an izango da bigarren edizioa eta berrikuntza dezente egon-

go direla aipatzen du Esti Irureta turismo teknikariak. Eguna iragartzeko erabiliko den irudia da lehen berrikuntza; izan ere, logotipoa aukeratzeko lehiaketa egin zen eta Legazpin jaio baina Zumaian bizi den Olatz Goibururen lanak irabazi zuen.

Festa egitaraua

Txistularien dianarekin goizeko 9tan esnatuko zaigu eguna. Geroago, goizeko 10etan izango da "Egunaren hasiera ofiziala". Algorri Ezagutza Etxean ate irekiak izango dira egun guztian. Ohiko eskaintza ikusteaz gain, "Euskal Kostaldea" izeneko erakusketa ere izango da, hau da, Marcos Sierra biologo donostiarrak muntatutako erakusketa. Bertan, Euskal Herriko kostaldearen orografia eta natura eta kostaldeari buruz prestatutako plangintzak azalduko dira argazki, mapa eta panelen bitartez. Erakusketa hau goizeko 10:00etatik 13:30era eta 16:00etatik 19:30era ikusi ahal izango da. Goizeko 11etan, gainera, Algorriko flyscha ikustera joateko irteera izango da.

Goiz partean Argazki Rallya hasten den bitartean (aldamenean duzue horren berri), 11:00etan Elikagaien azoka zabalduko da Beheko Plazan. Esti Iruretak azaldu duenez, aldaketak izango ditu azoka honek aurreko urtekoarekin alderatuta, azoka guztia itsasoarekin lotuta izango baita. Sare josunak izango dira, baita txalupen maketak ere. "Barbero Kojua" denda-ko Begoña eta Joxe Manuel ere han

aurkituko ditugu. Jan eta edateko parada ere izango da: olagarroa galiziar erara prestatua, Nardin enpresaren kontserbak eta Getariako txakolina, besteak beste. Aurreko urtean ez bezala, aurtengo honetan izango da olagarroa erosi eta etxera eramateko aukera, hutsean ontziratutako olagarroa izango baita salgai. Antolatzaileek goraipatzen dutenez, bizpahiru postu kenduta, beste guztiak Zumaiakoak izango dira. Azokak eguerdiko ordu bietan itxiko ditu ateak.

Bitartean, Olagarroa patatekin patata prestatzeko lehiaketa egingo da Frontoi Txikian. Herriko elkarte gastronomikoetako sukaldariak arituko dira lehian. Pasa den urtean Aita Mari elkarteak izan zen irabazlea. Txapela mantentzeko gai izango al dira aurtengoan?

Haurrak eta helduak ez dituzte ahaztu. Txikientzat "Itsaso taile-rra" izango da 11etatik ordu batera Gernika parkean; olagarro harrapatzaleei, berriz, hamaiketako eman- go zaie 11:15ean Pulpo elkarte- an. Geroxeago, 12atik ordu batera, olagarroa dohainik emango da taber- netan eta ordu batetik aurrera olagarro zopa dastatzeko aukera izango da Erribera kalean. Sabela betetzen dugun bitartean, Beheko Plaza Abes- batzaren saioak entzun ahal izango ditugu.

Eguerdiko ordu bietan olagarroa patatekin lehiaketaren epaia jakingo da eta sari banaketa egingo da. Ordu horretan emango zaio hasiera bazka-

Musika eta argazki rallya

Olarru Egun honen inguruan kulturak ere izango du bere tarte. Irailaren 16 ostiralean, iluntzeko 8tan hasita, herriko musika taldeen rock kontzertua izango da Amaia plazan. Azken uneko aldaketak ez badira, behintzat, Kamon Behibi, Paukoiat, Transtorno Mental, La Eskoria Abunda, Itaka, Strawberries eta lhes taldeak arituko dira.

Larunbatean, hilaren 17an, argazki rallya izango da. Izenak egunean bertan, goizeko 8:30etik 9:30etara Inda Mendi elkartearen eman beharko dira. Lanak kolorezko diapositiban egin beharko dira. Gaiak egunean bertan emango dira aditzera. Argazki rallyko oinarriak turismo bulegoan edota Foronda kultur etxean dituzue eskuragai.



tzen duenez, lehen Olarru Egun hartan 200 lagunentzako lekua zegoen eta jende pila bat geratu zen kanpoin. Hori kontuan hartuta, eta Euskal Jai eguneko bazkarian izan zen jendetza aurrekari zutela, 400 lagunentzako lekua izango da. Bazkaria prestatzen Asturias, Errioxa eta Valentziako sukaldariak izango dira. Azken horiek olagarroarekin egindako paella bat prestatuko dute.

Arratsaldeko 5etan eta 6etan bisita gidatuak egingo dira txalupan Algorri aldera eta 18:30ean folklore jaialdia izango da Beheko plazan Galizia eta Euskal Herriko dantzarekin. Ordu berebean, Erribera kaleko txosnetan olagarroarekin prestatutako brotxetak

eta sagardoa izango dira salgai. Pulpo K.E. eta Zumaia F.T. kideak izango dira bertan eta jasotzen den dirua beraientzat izango da. Deialdia herriko elkarte guztiei egin omen zieten, baina antolatzaileek diotenez, bi hauek bakarrik eman zuten baiezkua. Eguna amaitzeko, txaranga eta erromeria izango dira.

Bigarren Olarru Egun hau antolatzeko prozesua luzea izan dela aitortzen digu Esti Iruretak, baina aurreko urteko esperientziaren ondoren errazagoa izan dela dio.

Hori bai, Zumaia bizilekutzat hartu zuen egunaz madarikatzen ariko da oraindik olagarro gizagai-xoa/gajoa.



Mota guztietako altzariak

Xanti Osa

Amaia plaza, 7
tailerra: 943 860914
denda: 943 862385



Zerbitzu Ofiziala

ZUMAIA MOTOR

Santxo auzoa, 22
tel. 943 143 143 faxa: 943 865 161

Iaz baino 3.500 turista gehiago izan dira Zumaian

Ostatuak beteta egon dira eta aterpetxe baten beharra azpimarratu dute turismoko arduradunek

ITSASO IBARRA

Urte guztian turistak ibiltzen badira ere, gehienak uztailero eta abuztuko hilabeteetan etorri ohi dira Zumaia-ra; gehienak abuztuan. Hilabete horretan, 5.019 turista izan dira aurtun-iaz 4.073 izan ziren-; uztailan, berriz, 2.854 etorri dira-iaz 2.204-. Urtarriletik abendura 2004an 8.740 izan ziren eta aurtun 12.314. Udara oraindik ez da amaitu, eta irailean ere izango dira turistak, kopuru txikiagoan.

Jatorriari dagokionez, Estatutik gehienak Kataluniatik eta Madrildik datoz, eta atzerritarrak, berriz, gehienak Frantziatik. Esti Iruretak azaldu duenez, "Beste urteetan etortzen ziren gehienak bikoteak eta familiak izaten ziren, baina aurtun gazte jende asko etorri da, Eskandinaviatik, baita Donejakue bidea egiten ari direnak ere". Jende asko etorri da Zumaia-ra, eta bertako ostatuak ere goraino beteta egon dira: "Ostatu bila etortzen zirenei zerbait eskaini nahi eta ezin, dena beteta egon baita". Hala, taldean datozenei, bai motxileroei edo Donejakue bidea kostatik egiten dutenei, ostatu bat eman ahal izateko, aterpetxe bat izatearen beharra azaldu dute Ion Arratibel eta Esti Iruretak.

Itzurun hondartza famatua da Zumaia-ra datozenen artean, baina gurrera etortzen diren turistak ez dira hondartzaren bila etortzen: "Jendeak opor egunak sakabanatuta hartzen ditu, egun bat edo bi ematen ditu hemen, paisaiak ikusi nahi ditu eta

egunak ondo aprobetxatu". Horrengatik turismo bulegora gerturatzen direnek, ostatuarekin batera zer egin dezaketen da gehien egiten duten galdera. Hala, arrakasta itzela du esaterako Zumaia-tik Debara egiten den irteerak. Zumaia-ra datorren turista motari dagokionez, berriz, "ideala" dela azaldu dute. Izan ere Iruretak dioenez, "Hona datorren turista ez da Benidormera doana. Beste maila kultural bat du, gauzak ikusteko gogoz dator eta natura ezagutzen du. Daukagun turista motarekin ezin gara kexatu".

Udako berrikuntza

Udara honetan izan dira aukera berriak; Algorri interpretazio zentroa, Amaia-ko Plazako bulegoa, Donostia-tik Zumaia-ra autobus turistikoa edota Divergentes arte ekimena. Ekainean zabaldu zituen ateak Algorri interpretazio zentroak eta aurtengo udaren turistentzako beste erreferentzi puntu bat izan da. Bertatik, udako hiru hilabeteak kontuan hartuz, 3.083 bisitari izan dira. Esti Iruretak azaldu duenez, "Algorri herrikoia izatea nahi dugu". Hala, aurtun, olagarro eguneko erakusketa bertan egingo da, eta ateak zabalik izango ditu egun horretan.

Amaia-ko plazako bulegoak, berriz, abuztuan zabaldu ditu ateak eta herrian noraezean dabilzan turistei nora jo dezaketen azaltzea du helburu: "Taldea asko autobusetan etortzen dira; autobusak Amaia-ko plazan uzten ditu turistak eta askotan nora



jo ez dakitela geratzen dira. Bulego honetatik jendea bideratu nahi da".

Aurtun izandako beste berrikuntza bat Donostia-tik Gipuzkoako kostaldea zeharkatuz ibili den autobus turistikoa izan da. Autobus honek ere jendea ekarri du herrira eta antolatzaileak gustura daude emaitzekin; hala, irailean ere larunbatetan mantenduko dute zerbitzua. Udako azken berrikuntza Divergentes arte ekimena izan da; bertatik, 3.500 bisitari pasa dira.

Komikia ez da umeen gauza

Jon Mantzisorrek komikiei buruzko ikastaroa emango du urritik aurrera Forondan

"Komikia ez da umeen gauza" izenarekin komiki tailerra eskainiko du Jon Mantzisorrek Foronda Kultur Etxean. Ikastaroa larunbat goizetan 11etatik ordu batera emango du, eta bi orduko zortzi saioez osatuko da. Ikastaroa 14 urtetik gorako jendeari egongo da zuzenduta.

Komikiaren defendatzaile sutsua da Arte Ederretan lizentziatua et komikigilea den Jon Mantzisor: "Komikia da dudarik gabe arte diziplina guztien artean gutxietsiena. Pintura, eskultura edo literaturaren anaia txikia (edo arreba txikia) eta pobrea. Ia-ia artea izendapena ere onartzen ez zaiona (letra larriz idazten den ARTE hori). Eta, hala ere, komikiak 100 urte bete ditu, gaur egun ezagutzen dugun komiki moduan (arte sekuentziala, testua eta ilustrazioa narrazio batean biltzen dituen). Urrunago joanaz bestelako proto-komikiak arte prekolonbinoan edo Egiptoko papiroetan ere aurki baititzaiegu. Eta oraindik ere umeen gauza bezala ikusten du jendeak! Testu hutsezko literaturara salto egin aurretik gaztetxoek errazago irakurri

dezaketen aurre pauso bat bezala, medio guztiz autonomoa dela kontuan hartu gabe. Eta ez literaturak eta ez pinturak ez dituzten ezaugarri oso berezkoak dituen.

Bestalde, bizi dugun momentu teknologiko-digital honetan ere komikiaren eragina esparru askotan ikus dezakegu: publizitatean, web orrien diseinuan, zineman, bideo jokoetan..., komikiak komiki bezala ere oso osasuntsu jarraitzen duela ahaztu gabe. Adibidez, prentsako tira komikoetan, umeentzako argitalpenetan, comic-book espezializatueta eta zer esanik ez Japonia bezalako herrialde batean, non Manga fenomenoak adin eta egoera sozial guztietako jendea bereganatu duen.

Horrekin batera, eta bukatzeko, komikiaren ezaugarri garrantzitsuenetako bat azpimarratu behar da, oraindik ere indarrean mantentzen baita: hau da arte adierazpenik bizkorrenetako bat, merkeenetako bat eta bitartekaririk gutxien behar dituenetako bat. Edonork egin dezake bere etxean eta ez du behar zinemak behar duen diru pilarik. Argitaratzea



ere ez da hain zaila (eta beti kaleratu ahal izango da fotokopia hutsezko fanzine bezala ere) eta egiteko modua ere guztiz intuitiboa izan daiteke; ez du eskatzen arkitekturak edo eskulturak exijitzen dituen ezagutza tekniko edo ikasketarik.

Ikastaroak alde teorikoa eta praktikoa izango ditu. Horren oinarriak eta ezaugarriak Foronda Kultur Etxean jaso ahal izango dira. Informazio gehiago 943 861 056 telefono zenbakian.

Karmengo Ama, 14
E-20749 **Arroa** (Gipuzkoa)
Tel/Fax: +34 943 14 83 06
e-mail: bakun@euskalnet.net

finés
french
euskara
englantia
español
catalonian
suomi basc
català finnois
français anglais
catalan française
castellano finnish
inglés baski catalán

Bakun
ITZULPEN ETA ARGITALPEN
ZERBITZUAK S.L



TXALAPARTA
O P A R I A K

Angeles Sorazu, 2
Tel. 943 143089

Ixiar Arrizabalaga preso ohia

"Oporretan egotearen sentsazioa daukat"

Ixiar Arrizabalaga (Zumaia, 1960) orain dela egun gutxi irten da kartzelatik, 18 urteren ondoren. Elkarriketarako, Zumaia-ik urrutzea proposatu diogu; izan ere, oraindik lagun eta ezagun askok agurtzen dute, eta beldur gara solasaldia etengo diguten. Kartzela barrukoaz eta kanpokoaz hitz egin digu eta ederki bereizten ditu "hemen" eta "han", baina oraindik ere "gu" erabiltzen du barruan geratu direnez hitz egitean.

M.A. ETA I.A.

Nolakoak izan ziren azkeneko egunak kartzelan?

Azken hilabeteak oso lasaiak; beti pentsatzen "Lasai, aterako naiz-eta", ohitu egiten zara, badirudi bizitza osoa zaudela espetxean. Azkeneko asteak bai, nahiko urduri: ziurtatu dena ondo dagoela... Baina ez nintzen benetan kontziente alde egin behar nuela "Bazoaz!" esan zidaten arte. Une hori oso gogorra da, bizia; dena nahasten da: poza, urduritasuna, tristura..., batez ere laguna barruan uzten duzulako.

Azken orduko sorpresaren beldurrik bai? Ikusirik nola dau-den gauzak...

Ez. Barruan garbi daukagu De Juanari-eta egin diotena ez dietela denei egingo. Hori egingo diete preso esanguratsuei. Nire ustez ari dira probatzen, ea badaukaten luzatzea eta jende gehiagori aplikatu. Egin diotena oso grabea da, legez kanpoko, erabaki politikoa erabat. Okerrena da, ordea, ez dela egon behar bezalako erantzunik kalean; badirudi jendea ohitu egin dela; bestela ez lirateke ausartuko. Baina ez da oraingo kontua, horren adibide asko ditugu: Mahai Nazionala kartzelara, alderdiak legez kanpo uztea...

18 urte kartzelan... Egunerokoan, egote horretan, egun bakoitza markatzen al zenuen? Zeure buruari esan: bat gutxiago...

Egunak ez dira banan-banan kontatzen, ez diezu gurutzerik egiten. Niretzat, beti erreferentziak izan dira atxiloteta eguna eta urtearen hasiera. Bestela, egunez egunerokoan, ez zara bereziki konturatzen, errutina sortzen duzu eta egunak nahiko



azkar pasatzen dira. Kartzelan, eguneko helburua da egun horretarako pentsatu dituzun gauza guztiak egitea, garrantzitsua da eguna beteta edukitzea gauzak egiten.

Ba al dago etenik zure bizitzan, kartzelara sartu aurretik eta kartzelara sartu ondoren?

Ez, ez dago etenik. Nik kartzelan bizipen asko izan ditut, gertatu zaizkit mila istorio eta ezagutu dut jende asko oso desberdina... Eta gauza asko ikasi ere egin ditut. Ikasi dut baloratzen naturarekin lotuta dauden gauza guztiak, eguneroko huskeriak; adibidez, jaikitzea eta leihoa zabaldua ikustea zer eguraldi egiten duen; edo erlazioak, zer den pertsona bat ukitzea...

Kosta egiten da imajinatzea kartzelan momentu onik...

Ba, izaten dira: baten urtebetetzea dela, eguraldi ona dagoelako eguzkitan jartzea, aspaldian ikusi ez duzun kide bat ikustea... Une horiek gozatu egiten dituzu eta ahaztezinak dira. Gainera, luzatu egiten dituzu, jarraitzen duzu horretan pentsatzen. Edo

momentu ona da ekartzen dizute-
nean *Baleike*, eta ikusten duzu
lagun bat, ezagunak... Momentu
horietan, zu joan egiten zara
kartzelatik.

Kanpoan ondo bereizten ditugu
asteguna eta asteburua.
Kartzelan ere bai?

Asteburuak aspergarriagoak dira,
gauza on bakarra daukate: bisitak.
Barruan, nahiago ditugu astegu-
nak, tailerrak, eskulanak...
ditugulako, baina batez ere
korreoarengatik: korreoa da zure
lotura kalearekin, zuk maite duzun jendearekin, eta gutunak
ematen dizkizutenean, eguna balekoa da; eta gutunean zer
jartzen duen pentsatzen, beste egun bat joaten da; eta
erantzuteko, beste bat; gutunekin sentitzen duzu bizirik
zaudela, hor erlazio bat dagoelako.

Eta osasuna? Kartzelan edozein gaixotasun harrapatuta
ere... Burua ere prestatu egin beharko da, ez behea
jotzeko...

Zeure buruari esaten diozu: "Nik hemendik irten behar dut
ahalik eta ondoen, bai fisikoki, bai psikikoki". Horregatik
egiten dute presoek hainbeste kirol. Eta gero saiatzen gara
zerbaitetan okupatuta egoten. Utziz gero denbora bere kasa
joaten, ezer egin gabe, kartzelak jan egiten zaitu, akabatu.
Osasun baldintzak, berriz, oso txarrak dira: medikuarenera
joan minez eta pilula batzuk ematen dizkizu, eta esaten dizu
"Ez badizu onera egiten, etorri 15 eguner". Beno, espetxe
lasaiagoa tokatuz gero, medikuen tratua ere hobea da.

Espetxe lasaia aipatu duzu. Ba al dago espetxe hoberik edo
okerragorik? Zeren arabera?

Batez ere funtzionarioen edo barneko erregimenaren
arabera. Funtzionarioek esaten dute Madrilgo aginduak
dituztela. Nik hori Salto del Negron argi ikusten nuen. Bi hil-
abetetan egunero 3 biluzketa, miaketa, beti gainea; gero,
bat-batean, lasai, ez miaketarik ez ezer; eta ohitzen zinenean,
ba, berriro biluzketak, miaketak... Ez du hainbeste inporta

"Kartzelan
ikasi dut
baloratzen
naturarekin
lotuta dauden
gauza guztiak,
eguneroko
huskeriak"



18 urte, 8 kartzela

Ixiar 1987ko ekainaren 15ean atxilotu zuten, Joan Mari senarrarekin eta beste kide batzuekin batera. Berez, legea betez gero, aspaldi behar zuen kalean, baina berak ondo gogoratzen duen moduan, azkenean "18 urte, 3 hilabete eta 10 egun" pasa ditu kartzelan. Urte hauetan, 8 presondegi ezagutu ditu, guztiak ere Euskal Herritik kanpokoak: Carabanchel (Madril), Yeserías (Madril), Puerto de Santa Santa María (Cadiz), Salto del Negro (Las Palmas), Bonxe (Lugo), Brieua (Ávila) eta Villabona (Asturias).


espetxea zaharra edo berria izan, zure mundua sortzen uzten
dizuten bitartean. Espetxean, gehien erretzen zaituena da
sufritzen duzun eraso eta familiari egiten dizkietenak.
Adibidez, bisitak beti 5 minutu atzeratzea... 5 minutu ez dira
ezer bizitza normalean, baina kartzelan, 35 minutuko bisitan,
aldea dago, eta hori, gainera, familiak 1.000 kilometro egin
dituenean... Edo pentsatu umea joan dela eta marrazkia



Era guztietako instalazioak etxebizitzan, pabilioi eta herriko argietan

Trenbide 5.pabilioia Tel./Faxa: 943 143402

TAILERRA: Estazioko kalea, 23
Tel. mugikorra: 608 143409



ADI

BASADI 28
20750 ZUMAIA
GIPUZKOA

tel. fax. 943 635 157
E-mail: adiele@euskalnet.net

Segi-ko gazteek poema hau eman eta irakurri zioten
Ixiarri ongi etorrian:

DUINTASUNAK ZURE BEGIAK DITU

*Duintasuna ez da poema batean kabitzen.
Duintasunak ez daki non amaitzen diren gauak,
batzuetan gauak lau ertz dituen lekuetan
gatibu hartu nahi izaten duten arren...*

Erraz esaten da.

Erraz idazten da.

Hemezortzi urte.

1987ko ekainaren 15a.

218 hilabete eta hamar egun.

6.641 gau.

159.384 ordu.

9.563.040 minutu.

*Eta minutu bakoitzean,
egunaren, eguraldiaren, albisteen,
bisiten, gutunen, besarkaden,
malkoen edota irribarreen arabera,
77 bat taupada.*

Denak itzalean.

Denak gatibu.

Denak preso.

Milioika taupada.

Erraz esaten da.

Erraz idazten da.

Hemezortzi urte.

Muxu asko gera daitezke eman gabe hemezortzi urtean.

Malko asko isur daitezke hemezortzi urtean.

Kilometro asko egin daitezke hemezortzi urtean.

Gau asko konta daitezke hemezortzi urtean.

Gutun ugari idatz daiteke hemezortzi urtean.

Amets asko egin daiteke hemezortzi urtean.

Eta horiek guztiak ez dira poema batean kabitzen.

Baina bihotz batean sar daitezke.

Eta iraun, iraun, eta iraun...

Libertatea besarkatu arte.

Duintasuna ez da poema batean kabitzen, Ixiar.

Duintasunak zure begiak ditu.

eman nahi dizula, eta ez dizutela uzten... Horrelako
huseriek egundoko mina egiten dute.

Barneko erregimen horretan, aldea egongo zen
funtzionariotik funtzionaria. Ezagutu al duzu
funtzionario onik?

Funtzionarioen artean ere denetarik dago, baina
funtzionario sentiberenek ere besteengan delegatzen dute
gustuko ez dutena eta kartzelak ezarritakoa berdin-berdin
betetzen dute, presoek ez dute nabaritzen. Niri behin bakar-
rik gertatu zait, duela gutxi; miaketa tokatzen zen eta
funtzionarioa ez zegoen ados; esan zidan kanpoan geratuko
zela, eta norbait etortzen bazen orduan sartuko zela
miazteko itxura egitera. Baina 18 urtean behin bakarrik
tokatu zait.

Dispersioa aipatzean, batez ere familiarekin akordatzeko
gara: kilometroak, arriskuak... Nola bizi da hori barruan?
Presoari begira, dispersioa batez ere bakardadea eta inpo-
tentzia da, nahi eta ezina. Bakarrik zaude, edozein erasoren
aurrean, edo erantzuteko. Dispersioa izan zen lehendik lor-
tuta zeudenak galdu eta zerotik hasia, eta bakarrik, gainera.
Gauzarik oinarritzkoenak lortzeko ere bai. Adibidez, Salton
egin genuen gose greba luzeenean bi gauza besterik ez
genuen eskatzen: miaketetan ez biluztea eta bakarrik ez
egotea moduluetan. Berrogei egun pasako gose grebaren
ondoren, zuzendariak onartu egin zuen, baina handik lau
egunera berriz ere miaketan biluzketa etorri zen. Orduan,
ezintasun handia sentitzen duzu. Ez dakizu zer egin, nola
jokatu. Eta horrek, denborarekin, denoi pasa digu faktura,
fisikoki eta psikikoki. Eta egun asko negarrez...

Negar asko egin al duzu?

Bai, tarteka. Baina barre ere bai, e?

Eta zergatik egiten da negar?

Ezintasunagatik. Adibidez, familia zain dago bisitarako eta
ez dituzte sartzen agindutako ordurako, eta igual da
funtzionarioak kafea hartzen ari direlako, eta zu zaude sutan,
eta hori behin eta berriz, eta hamargarrenean... Ezintasuna
eta amorrua sentitzen dituzu. Lehertu egiten zara eta pasa
egiten zaizu, hurrena arte.

Bisita amaitutakoan zu bertan geratzea... Noiz ohitzen
zara horretara?

Hori kanpokoen gauza da, ez barrukoena. Zuk badakizu bar-
ruan egon behar duzula, eta bisita hori da ordu erdia espetx-
etik kanpo, deskonektatzea. Kanpotik joaten direnentzat,
berriz, bestea han geratzen da. Dena da non kokatzen zaren.
Orain, hara joaten naizenean, pentsatzen dut gogorra egin-
go zaidala bueltatzea. Han zaudela, ikusten duzu jendear-
entzat gogorra dela, baina zuk ez duzu horrela bizi, zuretzat
momentu zoriontsua da.

Batzuetan imajinatzen hasten gara, kartzelan bageunde irtendakoan zer egingo genukeen: nora joan, zer jan... Horrelako pentsamendurik izan al duzu?

Hasieran, erori ginenean, egun seinalatuak genituen gogoan, festak-eta; gero, ordea, denborarekin aldatu egiten da, eta enteratzen zara santelmoak direla egutegian ikusi duzulako. Orduan, sortzen zaizkizu naturarekin lotuta dauden beharrak: itsasoan bainatzea, mendira joan, etxekoekin egon... Nik batez ere bi gauza ibili ditut buruan: bainua hartu Itzurunen eta Izarraitza igo. Irtendakoan, biak egin ditut, eta, benetan, imajinatzen dena baino hobea da. Janariarekin, berriz, ez dut gutizia berezirik. Espetxean gauza asko jaten dituzu eta denak, jeneralean, txarrak. Eta orain berdin zait: arrautza frijituak zigalak bezain onak izan dira, biak zoragarriak, eta zaporea ere desberdina da kalekoa edo kartzelakoa. Gutxi jaten jarraitzen dut, baina saiatzen naiz beti gauza desberdinak eskatzen.

Eta ingurukoek? Ez al zaizu iruditzen ingurukoek asko jaten dutela...

Egia esan, oraindik ez naiz ohartu ingurukoaz. Adibidez, ostegunean (kaleratzean) eta larunbatean (omenaldian) han nengoen, baina ez nengoen; begiratzen nion jendeari eta ez nuen inor ikusten; gauza askorekin ez naiz akordatzen... Oporretan egotearen sentsazioa daukat: orain hara joan, orain harekin egon..., oraindik errutinatik kanpo nago erabat. Adibidez, Zumaia nola dagoen ikusten dut: etxe gehiago, aldatuta, handiago... Hiri txiki baten antza hartzen diot. Kalean, zerk harritu zaitu gehien? Adibidez, jendeak zer altu hitz egiten duen...

Alderantziz: zer baxu hitz egiten duzuen, kartzelakoekin konparatuta! Baina gehiena iluntasunak harritu nau, gauak. Han inoiz ez dago iluntasunik, kanpoan beti daude-eta fokuak. Badaukazu leihoa tapatzea, baina zabalduz gero beti argia dago. Orain, berriz, etxeko leihora irten eta ez dut ikusten aurreko mendia; espetxean, leihora irten eta beti ikusten duzu aurreko pareta, eta egun argia baltiz bezala dago. Isiltasunak ere harritu nau, mendiko isiltasunak.

Zeure etxean bizi zara, bakarrik. Nola moldatzen zara?

Orain, egia esanda, lotara besterik ez naiz joaten. Koadrilakoak, etxekoak, denak gainean dauzkate, oso babestuta nago. Egun hauetan lagunak eta jendea ikusten ari naiz, eta eguraldi ona egiten duenean sartzen naiz hondartzan 12:00etan eta hor konpon beste guztia! Edo mendira joan,

"Gutunekin-eta sentitzen duzu bizirik zaudela, hor erlazio bat dagoelako"



Izarraitza; nahiz eta lainotuta egon, bista zoragarria zen: espazioa, urruntasunera begiratzea... Horretaz konturatu naiz: irten nintzenean, autobusean, denbora guztian nengoen batera eta bestera urrutira begiratzen, leihoetatik, umeak bezala...

Bukatzeko, nola ikusten duzu gaur egungo egoera politikoa?

Nik itxaropena badaukat, baikorra naiz. Iruditzen zait oraindik lan asko dagoela egiteko, baina baldintzak egon badaude. Horretarako, ordea, denok elkartu behar dugu. Niretzat Lizarra-Garazi oso garrantzitsua izan zen; iruditu zitzaigun dena eginda zegoela eta azkenean ez zegoen ezer ere. Orain ikasi dugu zuhurragoak izaten. Ilusioa piztu behar da, bai, baina oinarri finkoak eman ondoren. Behingoz alderdikeriak utzi eta herriari begira egin behar da lan. Arriskatu beharra dago eta aurrerapausoa eman. Gai izango gara? Hori da nire kezka eta beldurra.

Musika Banda, ikasturte berri

1860. urtean herrian Musika Banda bazegoela azaltzen duten dokumentuak ba omen daude. Zenbat aldaketa eta gora behera bizi izan ote ditu ordur geroztik! 1936ko Gerra eta ondorengoak, 1970. hamarkadan desagertuta

egotea, 1980 inguruan Tapiaren eskutik birsortzea eta abar. Gaur ere, XXI. mendean sartu berriak garen honetan, aldaketa eta berrikuntza garaiak bizi ditugu Zumaiaiko Musika Bandan.

OLATZ IRURETAGOiena

Motzean: garai berriak, erronka berriak. Horregatik, "betikoak" ditugun prozesio, kalejira edota danborradez gain, azken urteotan hasiak gara ekitaldi berriak sortzen, eta horren adibide, urteroko bihurtu diren Klarinete Maratoia eta Kontzertu Didaktikoa. Baita Inauteritako Konpartsa eta Kontzertu berezia ere, iaz lehen aldiz egin genuena, eta aurren ere errepikatuko duguna.

Edo Xexili Egunaren aitzakian, aurren ere egingo dugun festa galanta. Ekitaldi berri horien guztien helburu nagusietako bat herritarren parte hartzea bultzatzea da: zumaiarrei musikaz modu atsegin batean gozatzeko aukera ematea. Eta nola ez, herrian kultura musikala hedatzea, gainontzeko musika talde, musika estilo eta ekitaldiekin batera.



riaren aurrean

Aurtengorako, berrikuntza gehiago

Zumaiako Musika Bandak ikasturtea hiru hiruhilekotan banatzen du, eskolen antzera, eta bakoitzean, era askotako ekitaldiak egiten ditu. Aurten, adibidez, inoiz baino lehenago hasiko gara, urriaren 1ean Amaiako Plazan eskainiko dugun kontzertu bereziarekin. Gabonak baino lehen, laugarren urtez jarraian, Klarinete Maratoia egingo dugu, eta nola ez, Xexili Egunaren aitzakian, azaroaren bukaera aldera, sekulako festa antolatuko dugu. Lehen hiruhilekoa bukatzeko, Eguberri Eguneko kontzertua eskainiko dugu, aurten lehenengo aldiz, San Pedro Txiki eta Txikienak Abesbatzekin batera. Bigarren hiruhilekoa Erregeen Kabalgatarekin hasiko dugu, eta ondoren, Inauterietako festa berezia izango dugu, azken hiruhilekoa prestatzeko entseuekin batera. Ikasturteko azken zatian, Udaberriko kontzertua (apirilean), santelmotako danborradak, Kontzertu Didaktiko bikaina eta sanpedrotako ekitaldiak izango ditugu.

Ekitaldi hauez guztiez gain, Kristau Elkartek egiten dituen prozesioetan ere parte hartuko dugu urtean zehar. Zumaiatik kanpora ere joateko asmoa daukagu: batetik, inguruko herrietako bandekin elkartrukeak antolatuz; bestetik, Euskal Herritik kanpora irteteko aukerak aztertzen ari gara. Chesteko (Valentzia, Herrialde Katalanak) Gazteen Musika Bandarekin egin berri dugun elkartrukearen arrakasta ikusita, ilusio handiz jaso dugu Alcudiako musika bandak (Balear Irlak, Herrialde Katalanak) egin digun eskaintza: beraiekin elkartrukea egitea.

Lanerako ere, modu berriak

Ekitaldi eta erreperitorioaz gain, funtzionatzeko modua ere aldatzen ari gara. Musika Bandan ez dago geldirik egoterik. Kide guzti-guztiek, instrumentu bat edo beste

jotzeaz gain, bestelako ardurak dauzkate. Zortzi lagunez osatutako Junta edo Batzorde bat dago, eta hauek koordinatzen eta zuzentzen dituzte zazpi lantalde hauek: Zuzendaritza, Diru kontuak, Idazkaritza, Artxiboa, Musika Patronatuko bilerak, Arropak eta, azkenik, Kontzertuen antolaketa. Bandako kide guztiek lantalde batean edo bestean dihardute. Badira kontzertuen egitarauetz arduratzen direnak, edo kontzertuetarako aulki eta atri-lak prestatzen dituztenak, edo partituren artxiboaz arduratzen direnak. Beste batzuek ekitaldien memoriak egiten dituzte, edo afariak antolatu eta abar. Lan asko, beraz. Eta guztia, musu truk, borondate onenarekin, eta lana ondo egiteko ilusio galantarekin. Azken finean, helburua hauxe da: heldu, gazte zein gaztetxo, bandako lagun guzti-guztiak laneko arduraren bat hartzea. Gainera, ikusita banda ia erdia 16 urtetik beherakoa dela, halako funtzionamendua oso onuragarria gertatzen da gazteenen heziketarako ere.

Chesteko Gazteen Musika Bandarekin elkartrukea

Xexili, musikarien zaindaria maitea:

Zumaiatik idazten dizut.

Ni, Olatz naiz, Zumaiako Musika Bandako partaideetako bat.

Dakizun bezala, aurten Zumaiako Bandak inoiz ahaztuko ez duen bidaia egin du Valentziara, Chesten izeneko herrira, hain zuzen ere.

Eta honako eskutitz honetan, bertan bizi izandako momentu oro azaldu nahi nizkizuke.

Chestera bi helbururekin joan ginen: bata, kontzertua jotzea; bestea, bertako musika banda ezagutzea eta adiskide gehiago egitea.

Entseguak egin ondoren, Chesterantz abiatu ginen

Nikol Enea

TABERNA

Amaiako plaza

ad

**AUTOS
ZUMAIA**

Urola plaza 3-5
Tel: 943 86 14 85



uztailaren zortzian eta bidaian ordu asko egin ondoren, gauean iritsi ginen bertara.

Oso nekaturik geunden, baina, hala eta guztiz ere, esperientzia berri bat bizitzeko grinak nekea ezabatzen zigun. Gau hartan, Cheste herriko Unibertsitatera eraman gintuzten, eta bertan logelak hautatu ondoren, lo egin genuen.

Hurrengo goizean, jaiki ondoren, autobusa hartu eta herrira itzuli ginen. Gosaldun ondoren, Valentzia hirira joan ginen. Hiriaren zati bat ezagutu eta berriz ere Chéstera itzuli ginen bazkari ederra zain baikenuen: Valentzian ospe handia duen paella eder bat.

Chesteko bandakoekin bazkaldun eta giro onean amaitu genuen egun hura, eta gauean kontzertua jo genuen.

Hurrengo goizean Zumaiara bueltatu ginen.

Egun batzuk igaro ondoren, Chesteko banda gaztea Zumaiara etorri zen. Herriak harrera egin ondoren, Zumaia erakutsi eta bertako paisaia eta hondartzak ikusi genituen.

Egunean bertan, Chesteko banda gazteak hainbat kantuz alaitu zuen egun hura, Beheko plazara joan ziren zumaiar askok jakingo duten bezala.

Esperientzia bikaina izan zen eta honelako gehiago bizi nahi ditugula argi dago, asko ikasten baita.

Besterik gabe, musikak lagun gaitzala Zumaiari eta Zumaiako Musika Bandari momentu berriak ezagutzen eta musika zabaltzen.

Agur bero bat, Zumaiako Musika Bandaren izenean

AITA MARI KAFETEGIA

Julio Beabide, 15 Tel. 943 861345 - Zumaiara

GARRAIOAK
Asensio Artetxe Iturbe

Tel: 943 537 189 / 655 706 557
Irastari, 5-2A (Zumaiara) • Alzupigorta, 16-E (Mendara)

gofi
haur jantziak

Amaiako plaza z/g Tel. 943 860959

TALAI

INMOBILIARIA 943 143361
BIDAIK 943 143323
Ortega y gasset, 1

SIWA
Belardenda

Basadi 9
943 143404

- Elikadura, belarrik, buztinak, tratamenduak
- Kontsulta naturalista
- Osteopatia, masajea
- Dietak
- Estetizista
- Solorama
- Tai-chi, masaje eta Reliki ikastaroak

Arkupe

Okindegia eta gosariak

Kale nagusia, 2 Tel. 943 861521

H o r t z k l i n i k a

MOZÈS HIRIART eta SOULIER
Odontologoak

- * Odontologia orokorra
- * Periodontzia (kirurgiarik gabe)
- * Endodontzia
- * Implantologia
- * Ahoko prebentzio eta errehabilitazioa
- * Protesia
- * Hartz estetika (zeramika metalarik gabe)

Inplantologia: teknika berrienei esker, inplanteak jar ditzakegu, nahiz eta hezur gutxi izan.

Larunbatetan egun osoa zabalik

Maria Etxetxiki kalea, 1 behe. • ZARAUTZ • tfnoa: 943-130278

ALBAITARITZA
KLINIKA

MIREN SAN SEBASTIAN BARANDIARAN
DIEGO SAN SEBASTIAN BARANDIARAN
INAKI GARMENDIA MENDIZABAL

-ALBAITARIK-

astelenetik ostegunera 16:00-19:00
ostiralak 11:30-19:00
larunbatak ixita
aldeaz aurretik deitu

Basadi, 7 behea
Tel. 943143310
Tel. mugikorra: 608- 775508

Larrialdiak
- 24 ordu
- zeure etxean

olagarro enpanada

O SAGAIK,
2 lagunentzat:

Kilo bat inguruko olagarroa
Erramu hosto bat
Bi tipula handi
Oliba olio
Gatza eta piperbeltza
Lau tomate heldu
Pipermorro bat
Hostore xafla bat

Beñat Fernandez
de Arroyabe
Sukaldaria



Nola prestatu:

Lapiko handi batean jarri egosten ura eta tipulak. Bota erramu hostoa eta bor-bor hasten denean, sartu olagarroa hiru aldiz uretan eta berriz ere bor-bor egiten hasten den unetik utzi egosten 35 minutu. Utzi hozten uretan bertan. Ondoren atera, eta xukatu. Egosten erabilitako ura gorde.

Tipula txiki-txiki egin eta erdi egosi (potxatu). Gehitu tomate txikitua eta pipermorrea, eta gero olagarroa txikituta ere bai. Bota gatza eta piperbeltza. Egosi 5 minutu inguruan.

Zabaldtu hostorea, adibidez 30x35 cm inguruko forma emanda. Moztu erditik. Zati bat hartu eta estali labeko beheko xafla bat. Ertzetan eman arrautza gorringoa. Hostorearen erdi-erdian bota betegarria eta zabaldu, zapal-zapal. Beste pasta zatia gainean jarri, ertzak itxi behatzekin eta pasta guztiari eman arrautza gorringoa. Sartu labean 30 minutu, 180°, eta on egin.

Oharra: hostorearen orde, ogi masa ere erabiltzea badago.



ZALLA
Taberna - Erretegia

* plater konbinatuak
* otartekoak
* oilasko erreak

San Pedro, 4

Tel. 943 862387

CROISSANTERIA

pizzak
hanburgesak
bokatak...

marina

Baltasar Etxabe, 2 TEL: 943 860719

- Arrainak eta haragiak
aukeran

- Eguneke menua

- Jangela klimatizatua

Juaristi
JATETXEA

Basadi auzategia, 10

Tel. 943 861853



BASUSTA
ERRETEGIA

Patxita Etxezarreta, 25 Tel: 943 862073

"Zumaixan erriberetan petrolixua zeola uste izan huan. Eta zulaketak eiteko hor hasi nitxuan lanian."

ABELIN LINAZISORO

Eta mila lagun non edo nola sartu zineten? Barku haundixa izango zen, ezta?

Kargakua. 4000 toneladakoa-edo bai. Bodegan bi pixu zitian eta hantxe danok. *¡Todo el que no se ha mareado que se presente inmediatamente!*, esan zian kapitainak. Bodegatik atera ein giñuzten. Danok euskaldunak. Kosta-koak. Batzuei jaten eman, beste batzuei garbitu, ahal gendun bezela lagundu, besteari ura eraman, eta horrela. Batzuek ez hitxuan gauza ez jateko eta ez ezertako eta guk arrasta! Dana guretzako. Haixei kontserba eman eta guk pasara ein. Izorrai. Antxoa edo sardiña ematen zien eta haixena ailegatzerako beti ere hiru edo lau lata falta izaten huan. Eta ogixa? Joe! Gogorrago huan! Harrixa ematen zian! Badakik, hainbeste egun ontzixan... Hura paraerua!

Zenbat denbora eman zenu-ten Bilbotik Afrikaraino? Sei egun juxtu-juxtu. 1-ean enbarkatu eta 6-an Melillan.

Eta mila lagun zertara eraman zintuzten, ba, Melillara? Lanera. *Batallón de Trabajadores*-etara. Marruekos frantseseko mugara eraman gitxibertzian. Chafarinas-eta alde horretara.

Zer lan mota egiten zenuten? Kamiñua ein ginien. Frontera behetik

"Gero, guardixan zeбен moruak diarra eiten zigutean: ¡Rojos! ¡Rojos! ¡Os vamos a cortar el cuello! Eta guk: ¡Vete a tomar por culo!"



gora, behetik gora ireki ginien. Automobilentzako. Konpainia bat hamen, handik 10 kilometrotara beste bat, 20 kilometrotara bestea, horrela. Etorri, etorri honea!, hamen ondo eongo zeate-eta!, esaten zigutean Marruekos bertako lejonaixuak lanian ari giñan bitartean. Ihes eindakoak-eta

hitxuan: Jatekoa bazeok hamen! Eta zuek hor zer? Gosiak!, esaten zien. Gutako batzuek ihes ein zien. Oso gutxik. Harrapatu ezkerro: *¡Tú qué! ¡A la guerra!* Izorrai! Gerratik ihesi eta beste gerrarako harrapatu. Jaten-eta ondo xamar eon gitxuan.

Egunean zenbat ordu lan egiten zenuten?

Goizeko 6,30tan edo 7etan hasi eta egualdixa berotzen hasten zanean laga, 10,30tan edo 11tan. Hamaiketan

kanpo kontzentrazixora.

Batzuetan, presako lana zanian edo lan txarra tokatzen zanian, lana egiazten zien, baina bestela ez. Tirorik ez eta gu lasai. Pikatxoia-kin-eta gogor jo behar. Hoixe txarra. Bestela ondo. Gero, guardixan zeбен moruak diarra eiten zigutean: *¡Rojos! ¡Rojos! ¡Os vamos ha cortar el cuello! Eta guk: ¡Vete a tomar por culo! ¿Qué has dicho?*, hark, eta

guk: *¡Que te vayas por ahí!*, baezpane. Guardixa hil batian moruak eta beste-an lejionaxuak eiten zien. Behin batian pikatxoiaz joka ari nintzala harrixa sartu zikan hankean eta hezura gaiztotu. Hanka dana haundituta... Hura paraerua. Ospitalera eraman niñuen. Hanka ebaki eingo ziela bai eta ez ibili hitxuan. Halako batean,

jata, hanka lehertu eta zikin dana atera zien. Entxufe eerra hartu nian nik orduan. Etorri zikak mediku-komandantia eta: *Tú por el apellido serás vasco, no?* Hamar mila preso gitxuan, e? Eta ospital hartan bazeoan gaitza eta txarrikixa! Nik: *Sí, soy de Zumaia. ¡Hombre! -hark- Yo soy de San Sebastián! ¿Sabes hablar en vasco?* Eta nik: *¿No voy ha saber? Mucho mejor que en castellano.* Eta hark: *Tengo un hijo y quiero que sepa vasco. ¿Ya le enseñarías tú?* Joe! -nik- *Yo por salir a la calle con él...* Horrelaxe esan nitxuan. *Muy bien. Enseguida te harán un papel.* Hurrengo egunian mutil-koxkorakin etorri huan, eta: *Si te preguntan algo enseña este papel,* esan zian.

Euskaraz irakasteko lan hori non egiten zenuen haien etxean ala...

Etxean ez. Nik egunero eiten nuna hau huan: Haixen etxera jun, mutil-koxkorra hartu eta batean moilara, hurrengoan hara, beste batean beste aldera, eta horrela. Eguerdian bazkari legea ein eta hark bazkalondogan eskola itxian bertan hartzen zian institutiz batekin. Arratsaldeko laurak aldean berririo etxera bueltatu eta kale-
ra. Zazpi t'erdia arte-edo. Zortziretako etxean eon behar izaten ginien-eta.

Kalean bazkaltzen al zenuen?

Ez. Ni han etxeko bezela ibiltzen nitxuan. Han bertan bazkaldu eta mutilak eskolak hartu bitartean ni kalera. *Ya vendré a las 3,30 o a las 4,* esan eta hanka. Lo ospitalean eiten nian eta kurak eta danak komandante-mediku honek beak. Baina, danak ezin ondo erten. Kaka. Gabon eguna etorri huan eta hantxe izorratu nitxuan. Kauen!

Han ospitalean, monja batek, legazpiarra-edo, zaharra huan, esan zian meze-ta jun behar gendula eta jauna hartu. Nik, berriz, mezeta jun jungo nintzala, baina jauna hartu ez. Ni haixek danakin batera ez noala. Jauna hartu diozu? -esan nitxuan- Zuek Gernika dana erre dezue, eleizak eta dana, eta gainetik haixekin batera jauna hartzera jun? Gernikakoa zuek eginda? Ez. Ez naiz



“Etorri zikak mediku-komandantia eta: Tú por el apellido serás vasco, no? Nik: Sí, soy de Zumaia. ¡Hombre! -hark- Yo soy de San Sebastián! ¿Sabes hablar en vasco? Eta nik: No voy a saber? Mucho mejor que en castellano.”

jungo! Joe! Esan banixon, esan nixon. Ez zioan batere gustatu. Zuk etorri ein behar dezu!, hark. Eta nik: Ni jun eingo naiz, baina jauna hartzera ez! Zuek enbustekixa besterik ez dezue. Guk Gernikakoa ikusi gendun eta zuek ondo dakizue hori! Ondo da! Ondo da!, erantzun zian. Etorri huan eguna eta: *A ver Elosua, te llama la superiora.* Jun nitxuan eta: *Mañana vas ha ir al*

batallón, castigado. Andar! Lehengo tokira. Jai eguna huan eta nere komandante-mediku horrek ez zian ezer jakin. Horrek izorratu zian. Gero jakin zunian deitu zian eta: *¿Qué te ha pasado? ¿Por qué no me dijiste? No he podido,* nik. *Mire, ahí está la guardia esperándome.* Ospa ez eiteko lagundu ein zien, ba. Mekauen!!, komandantiak. Baina, ja berandu huan. Hartu automobila eta andar. Lehengo tokira ailegatu nauk eta: *¿Hay aquí algun dinamitero?*, galdetu zien. Nik ilara-

tik erten diat eta sarjentuak: *¿Como sabes manejar tú la dinamita?* Eta nik: *Allá en Zumaia haciendo obras he andado con dinamita. Te voy ha hacer una prueba, vamos,* hark. Han barrenadoreak-eta zibeztian eta: *A ver. Carga esto.* Ez zian esan zenbat sartu behar nun. Prueba ein nian eta: *Muy bien, aprobado.* Hantxe hasi nitxuan lanean. Lasai. Behar zanean kartutxo bat edo beste ipini eta egun osoan pasian ibiltzen nitxuan. Ondo.

Dinamitero bezala zenbat denbora eman zenuen?

Bost hilabete-edo. Etxera etorri arte. Egun osoa libre. Jefeia etortzen huan eta: *¿Cuantos tiros habeís preparado?* Hark lehendik markatuta lagatzen zian, ba. Eta guk: Honenbeste. *Conforme,*

hark. Laguntzailearekin ibiltzen nitxuan. Harrixa zulatu, kartutxo kargatu eta jata danba! Andadio! Dana aidian. Han ondo eon nitxuan. Libre. Gero, honea gatzela, barkuan sartu aurretik, moilan Gabonetako monja hura azaldu huan. Eta barkatzeko eta barkatzeko eskatu zidan, eta negar eiten zian. Badakik, nik hari Gernikakoa esateakoan, inpernuko zuluan zaudela esan nitxuan, ba. Barkatzeko eskatu zianean, nik: Oain barkatzeko eskatu?

Hura jun zan. Eta gainera oain askoz hobeto eon naiz. Han laga nian aho zabalik.

Gernikakoa gertatu zenean, zu handik hurre al zinen, ba?

Bai. Nahiko hurre. "Cinturón de Hierro" eiten. Gernikakoa ez ginien ikusten, baina aeroplanoak batea eta bestea zebiltzala bai. Bonbardeoaren danbateko soinu ere eerki aitu ginien.

"Cinturón de Hierro" bonbardatzen hasi zirenean, zuek ba al zenuten babes lekuri?

Ez. Noa-noa ihesi ein behar. Souetara, kamiño azpiko uren tuneletara eta ahal zan tokira. Bonba aurrean aplikatzen bazan, kantarilak eta danak eamaten zitian, baina nunbaiten ixkutatu ein behar. Gero jakiten ginien: Hi, honelako tokitan honenbeste gizon garbitu ditxik bonbak. Baina, zer eingo ginien? Tunel haixetan sartzea zubixen azpitan eotia bezela huan. Gauza txarrik ez dek pentsatzen.

Barkua Melillan hartu eta nora joan zineten?



*"Ni jun eingo naiz,
baina jauna hartzera
ez! Zuek enbustekixa
besterik ez dezue! Guk
Gernikakoa ikusi
gendun eta zuek ondo
dakizue hori!"*

Melillatik, Malagara, Malagatik Madri-dera eta Madritik honea. Trenez aldatu eta bale. Gu gipuzkoarrak taldea gitxuan, batzuek Zumarragan jetxi hitxuan eta besteak Donostixan. Nik Donostixan baskongadoa hartu eta bakar-bakarrik etxera. 1940an.

Baina zu Hueskako mendietan ibilita zaude. Noiz izan zen, ba, hori?

Hori 1942-tik aurrera. Bigarren gerra mundialean amerikanoak Afrikan desenbarkatu zien. Orduan atzera

berriz kinta dana deituak izan gitxuan. Ni ez nintzala jungo usten nian. Izan ere hamen Zumai-xan erriberetan petroli-xua zeola uste izan huan. Eta zulaketak eiteko hor hasi nitxuan lanian. Luakixetan. Kintak deitu zutenean nik esan nian: ¡No! Honek usai txarra zikak! Hanka eingo diat. Lehenbizi Santander, gero Le-nea. Edo bestela hamen bertan mili-

tarizatzen banaute, hobe. Baina nola konpañia Santanderren zeon, hara jun nitxuan, baezpane. Zumaiko enkargatuai esan nitxuan: *Pasa esto y esto*, eta hark, *si, hombre, si! Allí también hace falta gente!* Eta hara jun nitxuan, jefe. Santanderren hogei-bat egun ein nitian. Sondeok eiteko montatzen. Hamabost metrora ikatza bilatu ginien, hi. Nik uste nian han seguru neola, baina baezpane hango ingine-ruari kinteta deituta neola esan nitxuan eta uste nula, ba, han herritik urruti ondo eongo nintzala. *Tú tranquilo, hombre!*, esan zian txarri hark. Guardia zibilai parte eman ez zian, ba? Kuarteretik deitu zien eta: *¿Usted es de Zumaia? Si, nik. Pues aquí ha dado parte de usted el ingeniero fulano de tal. Izorrai. Tiene que presentarse en el cuartel de Zumaia, o si quiere llamamos nosotros mismos y...* Eta nik: *No, no, mañana mismo cojo el tren y me voy.* Zumaira etorri nitxuan. Orduan kuar-tela Beheko Plazako Zelaianeko etxean zeoan. *Usted tranquilo* -esan zien Zumaixan- *ya le llamaremos.* Hurrengo egunean Kantea Txikixa eta bixok presentatzeko Donostira, baina Donostira jun aurretik presentatzeko aiuntamen-tura. Sekretaxua Txintxueneko gaztea

zeoan eta han juntatu gitxuan kantea eta bixok... eta beste lau: Bitoriano Arroiabe, Jexux Unanue, Joxe Eizagirre eta beste bat. Usai txarra hartu nitxuan hari. Lau haixei Donostirako billetea eman ziuen eta gu bixoi espediziorako papera. Hau baezpada dekl!, nik. Danok batera gatziaz-tik, lau haixek. Bai, danok batera bai, baina zuek billetea eta guk papera. Donostixan moila ondoko komandantzixan presentatu gaitxuk. Herriz herri ari hitxuan deika. Zumaixa azkena. Halako batean: Zumaia! Andar gu ere barrura. Lau haixek bueltan Zumaira. Gu bixoi geratzeko. Izorrai! *Ustedes tienen que ir a Miranda. Miranda?*, nik. *Si. Esos cuatro tienen papeles distintos y ustedes a Miranda.* Nik, lanean mada-rikatzen ibili nitzala eta kristonak esan nitxizkuan komandanteari. Baina ondo portatu huan. *Todo esto es un negocio, esan zian, si, usted ha estado mucho tiempo castigado, pero yo no puedo hacer nada. Mañana se presentan aquí y al tren.* Hurrengo goizean lehenengo trenean jun gitxuan Kantea eta bixok. Izorrai. Baina Kantea azkenean libratu ein huan, aitta zaharra zeukalako eta



“Espanixa rekorritzen ibili gitxuan lanak eiten. Zumaiarra neu bakarrik.”

semerik ez. Danak alabak zitian, hik badakik, eta libratu ein huan. Espanixa rekorritzen ibili gitxuan lanak eiten. Zumaiarra neu bakarrik. Zaragozan intendentzixa tokatu zikan. Ondo. Entxufe ona huan. Trenak deskargatu eta kuartelera eraman. Jatekoa, edatekoa, porlana, burnixa... aplikatzen zana. Handik Valentziara. Hamen kostan frente bat eiten jardun ginien. Kaiak eta zuluak ein eta guardixak

eiten jarduten ginien. Desenbarkua gertatzen baldin bazan ere. Gu zai.

Zeren beldurra zeukaten, ba? Edo... amerikanoak handik desenbarkatuko zutelakoan-edo?

Amerikanoak ja Afrikan zibeztian. Uste diat baezpada ere ein zala lan hura. Guk jan, lo, eta guardixak ein. Ametralaiddoren-

tzako puestuak ere ein ginitien. Igeltsero lana. Hormigoia ein eta listo. Baina, nahiko ondo eon gitxuan.

Orduan zu Zaragozan eta Valentzixan egon zinen. Teruelen ere ibili zinen, ezta?

Teruelen eta toki askotan. Valentzixan denbora asko. Hamen herrietan gizonek gabe zibeztian, hilda eta prisionero asko eta kosetxak-eta jasotzeko jenderik ez. *¿Hay voluntarios para ayudar?*, esaten zien. *A ver vasco, vosotros sois buenos trabajando y a ver si venís a ayudar.* Eta guk. *Bueno, ya iremos.* Eta lagundu eiten ginien. Bateko patata ateatzen, besteko erremolatxa biltzen, hurrengo naranja jasotzen. Honenbesteko bat ematen zien laneko. Eta jana ere bai. Ondo. Beaxekin batera jaten ginien.

jarraituko du...

Kapaia
Zaldua

Erribera Kalea 20750 ZUMAIA (Gipuzkoa) Tel. 943 86 19 73

SAION
taberna

ORTEGA Y GASSET, 3

943 860151

"Muagi"

ERREHABILITAZIOA
KIROL MEDIKUNTZA
FISIOTERAPIA

Aita Mari 3.blokea
Tel. 943 86 16 91

RPS: 034/97

...hurrengoan lagunok, garaipen zuekin...



ITZIAR GARATE

Arratsaldeko 7ak inguru dira eta Donostian nago. Portuan. Eta bertso ezagun hori etorri zait burura. Zumaiaiko *Telmo Deun* trainerua ez da Kontxako Banderarako sailkatu. 10. postuan geratu da. Hasierako urduritasun aurpegiak aldatu egin dira. Bertan dauden arduradun, prestatzaile eta uretara ateratzerik izan ez duten arraunlarien aurpegiak aldatu egin dira. Ez dago galdetu beharrik emaitza zein izan den. Ziaboga bikaina egin ondoren, itzulerako luzean egon omen da gakoa. Itsaso gehiago eskatzen zuekin ere bazegoen.

Ingurura hurbiltzen ari diren zaletuen aurpegiak ere ez dute alaitasunik erakusten. Arraunlarien zain daude. Itxaropena zegoen lekuan begirada galduren bat edo beste eta "Zer egingo diogu" bezala-

ko esaldiak entzuten dira. Tristura hori inbidia puntutxo batekin nahastuta dagoela esango nuke; kaira datoz sailkatu diren ontzi batzuk. Castro, Hondarribia, Cabo da Cruz, Orio, Astillero, Koxtape eta Arkote dira horiek. Euren zaletu batzuek txaloekin hartzen dituzte. Zumaiarren artean isiltasuna da nagusi.

Zumaian bertan isiltasuna baino zeresana izango dela uste dut. Nola ez gure herrian. Denboraldi hasieratik ireki dira ahoak. Hartutako erabakiak kritikatu edo txalotzeko, edo arraunlariak animatzeko, gaurko egunean bezala. Leiho eta bal-koietan, aurten, ugaltu diren zapiak gogoratzean etorri zait burura. Nahiz eta zaletu batzuentzat *Telmo Deun*-ek zumaia gorriaren sei tonu galdu dituen. Herriak bazeukan Kontxa itsasotik ospatze-

ko gogoa. Baita arraunlariak beraiek ere. Sari polita izango zatekeen. Kanpotik ospatu beharko.

Bi ikurrina gehiago

Denboraldi hasieran zehaztu zuten helburuetako bat ezin izan dute lortu. Donostian, arraunean, behintzat, ez dira, ez gara, baimena ematen badidazue, arraunean izango. Itsasoaren gazi-gozoak. Baina, hotzean, egindako guztiaren emaitzak ikusirik, gauza hain gaizki ez dagoela dirudi: zortzi garaikur. Denboraldia bikain hasi ondoren, bi bandera badia berean, indarrez jarraitu dute arraunlariak: San Pedro, Pasaia, Ondarroa, Getaria, Zarautz, Zierbena eta Zumaia. Herriko bandera preziatua. Kresal usain ederra izan behar du orain "Goiko"-ren bulegoak.

Oraintxe ari da *Telmo Deun* kaira hurbiltzen. Bi ikurrina gehiago.

Rosi
garbiketak

- * Etxeak eta dendak
- * Enpresa eta auzo lanak
- * Erropa garbiketa eta tintaketa

Basadi,3-A
Tel. 943 861670

Galdona
burdindegia

Mendara marinela, 1 Tel. 943 861117
Juan Belmonte, 15 943 143346
Faxa. 943 861330

English School
Harvest

Ingeleseko klaseak adin guztietan
San Jose, 11 bis Tel. 943 143334



Hamar, denboraldi berean. Badago zer bedeinkatu. Euskal Federazioko Ligaren irabazleak direla dioena eta gipuzkoar onenaren saria dira azken bi hauek. Arraunlarien begiak kairantz luzatu dira. Bada-toz. Olatu txikien soinuaren gainetik zaletuen txaloek egin dute jauzi. Txalo sorta polita kaira hurbilduta koentzat kontsolagarri. Zaletu eta arraunlarientzat. Isiltasuna nagusitzen ari da berriz ere. Gauzak jasozeko unea da. Bagoaz kaitik.

Arraunak ere laster jasoko dira, denboraldia amaitzeaz dago. Beharbada, leihotako zapiak bezala. Baina oraindik ere geratzen dira estropada gehiago. Eta hauen artean irailaren 28 eta 29an denboraldiko bigarren helburua erdiesteko aukera izango dute Zumaiaiko arraunlariak: TKE Ligarako sailkapena. Zumaia eta Zarautz alde

Herriak bazeukan Kontxa itsasotik ospatzeko gogoia. Baita arraunlariak beraiek ere

batetik eta Isuntza eta Trintxerpe bestetik, zein baino zein. Kaletik goazela zapiak ikusteko begiekin gora egin behar dugun moduan, espero dezagun, beste behin bada ere, gure *Telmo Deun* traineruaren arraunak itsasotik gorantz begira jarriak izatea.



- * Eguneroko bazkaria
- * Pintxo eta bokatak
- * Koadrilentzako menu bereziak
- * Kazuelitak eta plater konbinatuak

Erribera kalea, 16
Tel. 943 862517



Tel. 943 143379



TXOMIN AGIRRE, z/g
TEL: 943 865369

Xabier Osa piraguista

"Dena dela, gu gure mailan gustura gaude, gu horiekin lehiatzen gara dirurik gabe"

Duela urte asko piraguan hasi eta atsedenaldi bat egin ondoren berriro ere indartsu dagoela erakutsi digu Xabi Osa piraguistak. Txekiar Errepublikan izana da orain dela gutxi

Europako txapelketan eta bertatik hiru dominarekin itzuli ziren Zumaiarrak. Garaipen horri eta beste hainbat konturi buruz galdetu diogu.

MAITANE AGIRRE

Noiz hasi zinen piraguan?

Puf... Aspaldi hasi nintzen. Koadrilan hasi ginen, eta gero urte asko entrenatzen ibili ondoren, entrenatzaile lanean ere ibili naiz. Urte askoan lagata egon ondoren, berriro hasi naiz.

Nolatan hasi zinen? Zerk bultzatu zintuen berriro hastera?

Nire lagunak hasi ziren eta hortik. Ni itsasoan hasi nintzen aurrena, buelta batzuk ematen, eta gero pixkanakapixkanaka piraguan ibiltzen, azkenean esan ziguten kluba hartu behar genuela eta horretarako komisio bat sortu genuenez, sartu eta sartu...

Nola entrenatzen zinen hasieran?

Hasieran itsasoan hasi ginen entrenatzen bakarrik, gero klubeko jendearekin hasi ginen eta aurtan Europako txapelketara joateko entrenamendu espezifikoko batzuk egin ditugu mediku batekin eta gauzak ondo eginda.

Emaitzak onak izan al dira?

Bai, bai, emaitzak onak izan dira, ondo prestatu gara, lan asko egin dugu eta gauzak ondo atera dira. Ez bakarrik horretan, adi-



Lekin
Zabier Osa, U.S.

Estimada Pasaia (Bilbao), 1999ko azaroaren 10ean. Zuzun 943 53 53 05 edo 943 53 53 06. E-mail: lekin@euskalnet.net

Instalazio elektrikoak
Telekomunikazioak
Informatika
Internet



DIGITAL +

Ongizan

fisioterapia zentroa
igor agirre eta idoia uranga

Tel./Fax: 943 53 53 05 • e-mail ongizan@euskalnet.net
Itzurun Zuhaitz-bidea 3-behea • 20750 Zumaiara (Gipuzkoa)

bidez lehengo urtean Oierrekin Espainiako txapelketan egon ginen eta laugarren eta bosgarren geratu ginen. Gainera, ekipo nazionala ere han zegoen eta, beraz, ondo.

Udan batera eta bestera ibili ondoren Zumaiarren emaitzak nolakoak izan dira? Zein da klubaren egoera? Bakarrik esango dizut ItxasGain gaurko egunean seigarren dagoela Liga Nazionalen. Denera ehun klubetik gora dira parte hartzen dutenak eta horietako batzuk diru asko dute eta aurrekontu handiak mugitzen dituzte. Galizian, esaterako, piraguismoa maila handiko kirola da eta, beraz, diru asko ipintzen da. Bertako piraguista batek nire mailarekin, adibidez, kobratu egiten du, han maila pixka bat daukan edozein piraguistak kobratu egiten du. Galizian piraguismoa gaur egun hemen arrauna bezala da, fitxajeak daude eta diru asko mugitzen da. Piraguista bati diru asko eskaintzen zaio (23milioi inguru), eta hemen hori ezin da. Dena dela, gu gure mailan gustura gaude, gu horiekin lehiatzen gara dirurik gabe.

Dena dela Zumaiako klubarentzat garrantzitsua izango zen duela gutxi ospatutako eta Liga Nazionalerako puntuagarria zen Urola ibaiaren igorrajaisiera, ezta?



Zumaiako klubak hartu duena izan da ospea, bereziki antolakuntzan. Izan ere, orain arte normalean piraguista izaten da "azken tximua", arraunean eginarazten zaio edozein tokitan, edozein ibaitan eta edozein baldintzatan, eta hemen, Zumaian, lehen helburua izan zen piraguistak garrantzia pixka bat edukitzea proban. Piraguistak oso gustura joan ziren, gainera kanpora joaten garenean esaten digute zergatik ez dugun Zumaian antolatzen Espainiako txapelketaren maratoiko zatia. Maratoiak parte bat dauka, porteoaren izeneko, piragua hartu eta korrika egitea 300 metro. Oso ikusgarria da; izan ere, porteoan, bai sarreran, baita irteeran ere, beti egoten dira kolpeak

arraunarekin.

Maratoia antolatzeko esan egiten digute, baina hor lan asko dago.

Eta zer izan da zuentzat igorrajaisiera hau?

Guretzat lan asko eta herriari erakustea non mugitzen garen. Gure helburuetako bat izan da Zumaiako herriari erakustea ItxasGain ez dela ibiltzen 20 pertsonako lehiaketatan. Oso jende onarekin lehiatzen dela erakutsi nahi izan dugu, mundu mailan oso ondo dabilen jendearekin eta hemen dauden mutilak lan asko egin behar dutela ezer kobratu gabe hor egoteko. Azken finean, herriari erakutsi nahi genion non ibiltzen diren gure muti-

INMOBILIARIA

Julio Beobide, 3 behea 943 86 23 01

D'Ana
Decoración

Kantauri Plaza 6, behea tel. 943 117 408

AIZPURUA
LIBREROS

Alta-Mari suzategia, 17
Tel. 943 861569



lak eta nolako mailatan dauden. Hori-
xe zen ilusiorik handiena.

Orain dela gutxi irabazitako
Europako txapelketa urte luzetako
lanaren emaitza izan al da?

Bai, bai, egia esan lehengo urtean
munduko txapelketa bat egin zen
hemen, Iparraldean, eta emaitza onak
lortu genituenez, Europako txapelke-
tara joatera animatu ginen. Entrena-
menduak, noski, ez dira oraingoak.

Non ospatu zen?
Txekiar Errepublikan

Nolakoa izan zen Europako txapel-
keta?

Maratoia izan zen, 20 km eta 3 porteo,
bai K1ean eta baita K2an ere. Egun

batean bat eta hurrengoan bestea.
Hor, ordea, aldrebestu egin zen, izan
ere, nik nahiago nuen aurrena K1 egin
ondo prestatuta nengoelako eta gero
K2, baina antolatzaileek aldatu egin
zuten eta hor zalantza eta beldur asko
eduki genituen. Baina azkenean ondo
irten zen.

Zertarako balio izan dizu pertsonalki
eta profesionalki garaipen honek?

Niretzat bultzada izan da eta besterik
ez, baina Oierrek estropada bakoitze-
an puntuak irabazten ditu eta beretzat
merezitako zerbeit izan zen, asko
entrenatu baitu eta gauza asko ari
baita galtzen.

Pozgarriena izan zen hiru medai-
lekin etorri ginela handik, baina
garrantzitsuena Oierrena izan zen,

dudarik gabe. Oierren karrera gaine-
ra oso polita izan zen, bukaera arte
hiru piragua ibili ziren aurretik eta
garailea azken esprintean erabaki
zen. Guretzat oso berezia izan zen;
gainera, bukatzen ari zirela bere
andreak deitu zidan eta telefonotik
azaldu nion zuzenean gertatzen ari
zena. Egia esan oso momentu bere-
zia izan zen.

Zer asmo dituzu etorkizunera
begira?

Lehendabizi, egia esan behar bada,
Oierri lagundu ahalik eta gehien,
baita hemen dauden gazteei ere,
eta gero entrenatzen jarraitu pixka
bat xaxatzeko gazteak eta erakuste-
ko zahar batek nola irabaz dezake-
en, azken batean hauek motibatze-
ko. Medailak eta horrelakoak
ondorengoak dira, lanaren emai-
tzak.

Lagun koadrila handia gaude klube-
an, oso ondo eramaten gara eta hori
beharrezkoa da, bai guretzat, baita
gazteentzat ere.

Guk nahi duguna da herriari ireki
gure instalazioak eta antolatzen
diren ikastaroetatik kanpo, jendea
klubera etorri eta buelta bat eman
dezala, betiere gure arauak errespetatuz
(buelta ezin baitira edozein
modutara eman). Azken batean, jen-
deak ezagutu ditzala gure instalazio-
ak; gero, nahi duena etortzen da eta
nahi ez duena ez.



ilargi
Alai auzategia, 2
Tel. 943 14 33 24



**Itzurrun
ATEAK**

- Material guztietako leihoak:
PVC, poliuretano, aluminio eta egurrezkoak
- Armairu enpotratuak
- Tarima, ate eta era guztietako pertsianak
- Lanen zuzendaritza

Bezeroak gustura uztea da gure helburua
Itzurrun zuhaitzbidea, 2 943861565 - 943143446



Erretetegia
OIKIA 943147683

Julian Iguar maratoilari beteranoa

"Lehen maratoia korritzen baduzu oso gaizki bukatu behar duzu gehiago ez egiteko"

Abuztu eta irailaren artean Donostian jokatu ziren XVI. Beteranoen Munduko Txapelketan partaide izan dugu Julian Iguar korrikalaria. Bero ikaragarriarekin korritu zen maratoiko proban irten zuen eta M55

mailan (55 eta 60 urte bitartekoentzat) hamaikagarren izan zen 3 ordu, 12 minutu eta 51 segundoko denbora egin ondoren. Proba honi eta orokorrean maratoiari buruz hizketan aritu gara berekin.

JUAN LUIS ROMATET

Proba korritu ondorengo egunean geratu gara. Oinak Itzurun hondartzan freskatzetik dator. Donostiako proba oso gogorra izan zela aitortzen digu, baina, hala ere maratoi gehiago korritzeko asmoa berretsi digu.

Nolatan hartu duzu parte Beteranoen Munduko txapelketa honetan?

Beteranoen munduko txapelketak zirela jakin nuenean zera pentsatu nuen, daukadan adinarekin honelako proba batean parte hartzeko aukera bakarra izan zitekeela. Akaso hemen-dik bi urtera Italiara joan ninteke, baina zaila ikusten dut. Gainera, aprobetxatu beharra zegoen Donostian zirela eta hemen entrenatzen aritzen



garenez erraztasun handiak genituela. Udaran, opor garaian izatean, gogorra-go izango zen prestatzea, batik bat familiagatik, ezingo nituelako gogoko ditudan gauza asko egin eta zertxobait gehiago zaindu beharko nuelako. Hala ere, parte hartzea erabaki nuen eta esperientzia oso polita izan dela uste dut.

Zein asmo zenituen txapelketaren aurretik?

Nire asmoa maratoia hiru ordu inguruan amaitzea zen. Normalean denbora horretan ibiltzen naiz. Bestalde, pentsatzen nuen udaran beroagatik denbora hori egitea zailagoa izango zela, nahiz eta beroarekin entrenatzen aritu naizen. Baina, noski, proba egunean zer eguraldi

ALTZARIAK
OSTOLAZA
AROEZTEGIA



Mota guztietako
altzariak eta
aroztegi lanak

Julio Beobide, 1
TEL: 943 861325



Julio Beobide 3, tfno. 943 019 869



Ignacio Zuloaga enparantza Tel. 943 861157



egin zuen ikusita, oso gustura geratu nintzen.

Nola joan zen proba?

Oso gogorra izan zen. Hezetasun handia zegoen eta bosgarren kilometrara denok blai eginda geunden izerdiarekin. Ura edaten genuen, baina segituan botatzen genuen. Fisikoki bular aldetik oso ondo bukatu nuen baina oinetatik asko sufritu nuen. Nire inguruan zebiltzanak ere berdin zeuden. Denbora berdinean aritzen garen talde bat osatu zen eta azkenean hariiek ere ni bezala edo okerrago amaitu zuten. Beraiek zer marka egin zituzten ikusi nuenean, nik ere ondo egin nuela pentsatu nuen. Beroak denoi egin zigun kalte; lasterketa begira zegoenak ere izerdia ederki bota zuen.

Zer maila zegoen lasterketan?

Oso ona. Nire mailako zenbait korrikalarik 2 ordu eta 47 minutuko denbora egin zuten. Marka hori oso ona da, bai 55 urterekin, baita 40 edo gutxia

gorekin ere. Gure mailan ehun korrikalari atera ziren eta denak maila onekoak, ondo prestatutakoak.

Gustura geratu al zinen egindako maratoiarekin?

Bai, ni oso pozik geratu nintzen, ezin baitzen gehiago egin. Zer bero egiten zuen ikusita, helburua proba bukatzea zen eta horretarako erritmo bat jarri nuen. Ziur aski munduko txapelketa batean berriz parte hartzeko aukera izango ez dudanez, eta familia ni animatzen han zegoenez, bukatzea polita izan zen. Lehen hamabosten artean sartu nintzela jakin nuenean oso pozik jarri nintzen, niretzat arrakasta handia zen. Gainera ez nago oso ziur, baina uste dut nire mailako lehen gipuzkoarra izan nintzela.

Noiztik duzu lasterka egiteko gogo hori?

38 edo 40 urte nituela hasi nintzen. Gehienbat gorpuzta zaintzen hasi nintzen, baina mundu honetan sartzen bazara... Gutxinaka hasten zara eta

kirolak

gero eta hobeto zaudela ohartzen zara. Ondorioz, gehiago zaintzen hasten zara. Gero, gainera, korrika ari zarela lagunak egiten dituzu eta haien mailara heltzen saiatzen zara. Niretzat oso gauza polita da dudan adinarekin 25 edo 30 urteko gazteekin lasterka batera egiten dudala ikustea. Hori handia da.

Noiz hasi zinen lasterketetan parte hartzen?

Lehen urtean Zakila Bira eta Behobiako lasterketak egin nituen. Gero, 41-42 urte nituela, egin nuen lehen maratokia. Aurrenekoan beldurrarekin, proba ahal den moduan amaitzera joaten zara. Lehen maratoki hori zizko eginda bukatu nuen, baina handik hamabost egunera dena ahaztu nuen eta beste bat korritzeko gogoia nuen. Lehen maratokia korritzen baduzu, oso gaizki bukatu behar duzu gehiago ez egiteko. Kirolari batentzat gehien kentzen dizun proba da, baina baita gehiena ematen dizuna ere. Maratokia bukatzea arrakasta handia da. Gero, denbora ona egin baduzu, hobeto.

Ze entrenamendu mota egiten duzu?

Maratokia egiteko 90 bat kilometro egiten ditut astean. Egutero 12-15 kilometro egiten ditut eta asteburutan 30 bat kilometro. Astean atsedenaldirako egun bakarra izaten dut. Hau guztia maratokia korritu aurreko hamar asteetan. Urte guztian egiten dut korrika eta maratokia hurbiltzen ari den heinean kilometro kopurua igo egiten dut. Horrela, hamar aste horietarako gorpuzta prestatuta dago, bestela ezingo bainuke 15 kilometro horiek egin. Hori dena, gainera, lanetik aterata. Maratokia korritzeko garrantzitsua da bakarrik prestatzea, gero proban bakarrik ibiliko baitzara. Horretaz gain, beharrezkoa da burua hotza izatea. Probaren ondoren astebete inguru egoten

naiz lasterka egin gabe, baina pixka bat geroago jada korrika egiteko "monoa" izaten dut.

Zer helburu jartzen duzu maratoi bat prestatzerakoan?

Bukatzea eta gero denbora egitearena dator. Bakoitzak badaki zer denboratan ibiliko den eta hori hobetzea da erronka, ez aldamenekoarena hobetzea.

Zein da zure marka onena?

Denbora onena 2 ordu 56 minutu eta 10 segundokoa da. Gainera, egun horretan 35. kilometroan erori egin nintzen. Bestela hobetu egingo nuen. Denbora hori orain hiru urte egin nuen, 57 urte nituela. Urtero joan naiz denborak hobetzen. Adibidez, 1992. urtean Donostiako Munduko maratoi kopan 3 ordu eta 15 minutuko denbora egin nuen. Hiru ordu izaten da korrikalari ez profesionalen barrera. Hortik jaistea arrakasta handia da korrikalariarentzat.

Krosarekin parekatuta oso desberdina izango da, ezta?

Ez dute zerikusirik. Krosa proba esplosiboa da. Zenbat eta urte gehiago izan, esplosibitate hori galtzen joaten da. Esan liteke gu diesel motorrak bezala garela, erritmoan aritzen garenak. Hamar edo hogei kilometroko probetan ondo ibiltzen direnei kostatzen zaie maratokia egitea.

Zer dio zure familiak honi buruz? Zer garrantzia du familiak?

Dena. Familian arazoren bat baduzu, burua ez duzu modu egokian eta ezin duzu ondo entrenatu. Prestaketa egitean ez duzu beste ezer eduki behar buruan. Baina arazoren bat baduzu, norbait gaixo badago, hori igarri egiten da. Familiak askotan eskatu dit gelditzeko, baina... Oso zaila da desengantxatzea, guretzat korrika egitea droga bat da eta.

Etorkizunera begira zer asmo dituzu?

Maratoi gehiago korrituko ditut, baina Donostiakoa aurrean ez. Zakila Bira egingo dut, gero Donostiako 15 kilometroko lasterketa eta besteren bat. Denbora hobetzea, berriz, zaila ikusten du, 58 urtetara noa eta.

Behobiako lasterketan parte hartzeko asmorik ba al duzu?

Ez, maratokia korritzen bada Behobiakoa ez da egiten, ez baitu prestatzeko denbora ematen. Gainera, Behobiakoa baino nahiago dut Zakila Bira egin, politagoa da eta. Hemen gehiago disfrutatzen da eta korrika ere hobeto egiten da. Erribera kalean sartzean, duzun apur hori ematen duzu. Azken metro horietan, jende artean, hegan joaten zara. Ni, gainera, Zumaian korrika ibiltzen naizen zaharrena izango naiz eta gu gehiago animatzen gaituzte, edo hala ematen du behintzat!

ITSASKI SUPERMERKATUA

Urumea kalea z/g
Tel. 943 143058

amaia plaza, 2
Tel. 943 143278



Antonio Etxabe



Gizonezkoen
erropak

Zumbillo, 4 Tel. 943 861407



Txomin Agirre kaia, 6
Tel./Faxa: 943-143057
Z U M A I A

EGOKI



Erloju
eta bitxidenda

E. Gurrutxaga plazan

BEDUA ITURGINTZA S.L.

ANTONIO AZPILLAGA



- KALEFAKZIOA
- ZORU BERO-EMALEA
- GAS INSTALAZIOA
- GAS NATURALA
- BAINUGELAK ETA SUKALDEAK

Jose Mari Korta Industriegunea, 9- Mod.
20750 ZUMAIA - Gipuzkoa
Tel. 943 14 33 69

Kirol batzuk gero eta indar handiagoa hartzen ari dira Zumaian. Horietako bat eskalada da, eta kirol horretan Josebe Zarautz nabarmendu da. 14 urteko neska gazte hau duela gutxi hasi

da eskalada praktikatzeko, baina onenen mailara iritsi da jadanik. Orain dela 2 hilabete Espainiako Kopa irabazi zuen eta hurrengo proba Espainiako Txapelketa izango du.

Josebe Zarautz onenen artean

ITSASO IBARRA

Josebek adierazi digunez, Zumaian rokodromoa egin zuten urtean hasi zen eskalada ezagutzen. Urte hartan bertan, udaran egiten diren 2 asteko ikastaro batean hartu zuen parte eta irakasleak Donostiako beste ikastaro batean aritzeko gomendatu zion. Bertan probatu ondoren, entrenatzaileak Fortuna taldean sartzea eskaini zion.

Taldean sartu eta handik 2 hilabetez, entrenatzaileak 2004ko Espainiako Txapelketara bidaltzea erabaki zuen. "Beldurrarekin joan nintzen, baina ondo atera zitzaidan", esan digu Josebek. Argi dago ondo egin zuela, bigarren gelditu baitzen bere lehenengo txapelketan.

Aurten ere Josebe denboraldi ona egiten ari da. Estatuko txapelketarik garrantzitsuena irabazi du, hau da, Espainiako Kopa, eta horrek beste txapelketa batzuetarako bideak ireki dizkio, adibidez, Europakoak eta Mundurakoak.

Eskalatzaileak esan digunez, Europako proba beste pertsona bat joango da eta berak Mundukora joateko aukera du 16 urtez azpiko mailan. Baina arazo pertsonalak direla medio, Josebek ezin izango du Txinan egon.

Denboraldiko azken proba nagusia Espainiako Txapelketa izango da, irailean. Horretaz gain, erakustaldiak egingo ditu Euskal Herrian eta zorte onarekin jarraitzea espero du.

Etorkizunaz galdetuta, Josebek esan digu bere burua rokodromotan baino gehiago haitzetan ikusten duela. Oraindik gutxi ibili bada ere, praktikatzeko garaian politagoa dela iruditzen zaio, besteak beste ikusten diren paisaiengatik. Gainera, Espainiako Federazioak aukera ematen die 10 onenei Pedro Pons eskalatzailearekin haitzetan astebeteko jardunaldietan aritzeko.

Rokodromoaren eta haitzen arteko desberdintasuna maila eta teknika alorrean dago. Haitzetan, teknika zehatzagoa izan behar da eta arriskuak ere handiagoak dira. Bestalde, "Mailari dagokionez ere, desberdintasunak nabarmenak dira. Adibidez, rokodromoan 7b maila baduzu, haitzetan zure maila hori 6c-ra jaitsi daiteke. Baina nik nahiago ditut haitzak, neuk bilatu behar ditudalako heldulekuak eta harri gutxiago daukelako. Ondorioz, zailagoa da."

Baleiketik, zorterik onena opa diogu Joseberi hemendik aurrerako probetan



TOKIKO AGENDA 21



MUGIKORTASUN ASTEA ETA AUTORIK GABEKO EGUNA

Zumaiako Agenda 21ek herritarren bizi-kalitatea hobetzea du helburu eta horretarako gure bizimoduaren hainbat aldaketa egin behar dugu. Egun, herritarren bizi kalitatean eragiten duen arazo bat trafikoaren gorakada da.

Gure gizartearen auto kopurua handitzen doa egunez egun eta automobilak gure kaleetako protagonistak dira. Arazo honi aurre egiteko irtenbideak bilatu behar dira eta beharrezkoa da guztion jokatzea eta dhiurak aldatzea. Horretarako ospatzen dira mugikortasun astea eta autorik gabeko egunak, alegia.

MUGIKORTASUN ASTEA

Mugikortasun astea irailaren 16tik 22ra ospatzen da. Euskal Herriko eta Europako udalerri askotan ekitaldi ugari antolatzen dira gai honen inguruan. Kanpainaren aurten go leloa "Lanera autorik gabe" da. Aste honen helburua jendea sentsibilizatzea da autoaren gehiegizko erabilera inguruan.

Badaude beste garraibide alternatiboak eta ahal dugunean horiek erabiltzeko aukera dugula jakin behar dugu guztiok. Zumaiari ekitaldi antolatuko dira aste honetan eta biak

irailaren 21an izango dira arratsaldeko 18:00etatik 20:00etara. Alde batetik gynnara bat antolatuko da: 20 joko baino gehiago antolatuko dira haurrei zuzendutako, mugikortasuna, trebetasuna eta psikomotrizitatearekin zerikusia dutenak, hain zuzen.

Beste alde batetik, bizikleten mantenuari buruzko tailerra antolatuko da eta bertan Bizikletari buruzko oinarriko kontzeptuak erakutsiko dira: Bizikletaren zatiak, bizikleten dhizko matxurak konpontzen ikasi, etab.

AUTORIK GABEKO EGUNA

Zumaiari autorik gabeko eguna urriaren 9an antolatuko da. Egun horretan ekitaldi ugari antolatuko dira:

- Bizikleta marbxa: udalerriatik zehar izango eta bukaeran hamaiketako bat banatuko da par tehar tzaileen artean.
- Txu-txu tren eta harrentzako jolas parkea
- Autoa erabiltzen ez duten gidariak sarituak izango dira eta egonaldi bat nekazal turismo batean zozketatuko da
- Kirol por tuan aparkatzen dutenek kaira pasatzeko aukera izango dute dan.

INFORMAZIO GEHIAGO:

Tel.: 943 89 00 45
www.urolakosta.org
agenda 21@urolakosta.org



TV-VIDEO-HIFI
ELEKTROGAILUAK
SUKALDE ETA BAINUKO ALTZARIAK
ERRIBERA, 8 943 861694

AROTEGIA

Urola 2000, s.l.

- *Eraikuntzen akabera eta dekorazioa
- *Baserrien zaharberritzea
- *Enbarkazio konponketa
- *Ate, zokalo tarima eta pertsianak
- *Armairu enpotratuen aurrealdea
- *Aroztegi metalikoa

Trenbide kalea, 1 Tel. 943143505



Tel. 943 860000

ERROTA
OPIL-OKINDEGIA

Gure txokoa

• taberna •

kaxuelita eta pintxo ezberdinak

Upela plaza, 4 tel: 943 860970

GOIKO BODEGOIA
"Betiko Goiko"

Erribera 9 - 20750 ZUMATA • Tel. 943 861391

iglu bat lorategian

“mundu osora konektatuta dagoen espazioa sortu dut”

Inaugurazioko eguna, erlaxatzeko ordua iritsi da. Garagardoa eskuan hartuta, horretan saiatzen ari da Ewen.

Nolakoa izan da Ikusi enpresarekin izan duzun harremana?

Hasieran interesatuta egon ziren, baina gero zaila da interesa mantentzea, enpresak bere zereginak baititu. Artistak enpresaren barruan oso txikiak gara, nik oso gauza teknikoak egin nahi nituen, denbora gutxi dago programazioak egiteko eta enpresa enpresa da, eta han denbora dirua da.

Elkarlana zaila izan al da?

Beraiek oso gertu zeuden edozein erabaki hartzerako orduan. Nik beste lanean zerbait behar badut erosi egiten du eta kitto, hemen departamenduz departamentu joan behar da proposamenarekin erabakiak hartzera. Atzera eta aurrera ibili behar da, agian garestiegia da zuk proposatu duzuna eta berriz hasieratik hasi behar duzu... oso mantsoa.

Lan egiteko bi modu oso ezberdin dira.

Bai, nik egunotan lan gehiago egin dut!!! Enpresak ateak ixten dituenen kitto, nik gaueko ordu txikiak arte jardun behar izan dut hemen.

Hasierako ideia asko aldatu al da?

Kontzeptua ez, baina egitura bai. Hasiera batean zuhaitzetan antena eta telebista pantailak zintzilikatzea pentsatzen nuen. Kanpoko eguraldiarentzat segurtasun neurriak askoz ere gogorragoak



“Hasieran interesatuta egon ziren, baina zaila izan da interesa mantentzea, enpresak bere zereginak baititu”

dira ordea, eta garestiegia zela esan zidaten. Bi aste eta gero hartu genuen aldatzeko erabakia. Iglu antzeko egitura berezia egin dugu. Geodesic egitura berezia eratu dugu, ikuspegi globala eskaintzen duen arkitekturako egitura bat da.

Zer ikusiko du bisitariak?

Munduko medioen ikuspegi globala izango du eskura. European dagoen telebista satellite sitemarik handienari konektaturik dago eta 1000 telebista kanal ikusi daitezke bertatik. Txina, India, Amerika edonongoak. Nik gaur egin dudana aukeraketa hau aldatzeko asmoa dut, eta antolatzaileei esango diet aktualitatearekin loturiko kanalak jartzeko. Adibidez uztailean nazioarteko arazoren bat sortuz gero, arazoarekin loturiko telebista kanal ezberdinak jarriko dira. Ikuspuntu ezberdinak ikusleak bere ondorioak atera ditzan. Mundu guztiko telebistak puntu berdinean eta momentu berean martxan. Mundu osora konektatuta dagoen espazioa sortu dut. Software baten bidez, satellitearen posizioa adierazten duen proiektzioa dago, denbora errealean. Gaua noiz datorren ere igarri daiteke.

Hau dena alde zuretik pentsatua al zeneukan?

Bai, bai, hori zen hasierako proiektua. Ikusik proposamena jaso zuenean, satelliteen datuak jasotzeko aparatu ezberdinak izateko aukera eman dit.

inpernupeko besarkada

"artistak lanean azkarragoak eta malguagoak gara enpresak baino"

Han ari zen lanean Luis buzo urdina zeramaten teknikoekin. Ur bonbak jartzen zebiltzan teknikariei azalpenak emateari utzi gabe erantzun zizkigun galderak.

IK4 enpresarekin izan duzun harremana nolakoa izan da?

Konplikatua da beraiekin lan egitea, ikerketa eta garapenarekin egiten dute lan, mikroteknologiarekin. Inertzia handia daramatea lanean eta beren prozesuak gelditzea asko kostatzen zaie honelako proiektu artistiko bati heltzeko. Baina harremana oso ona izan da.

Idea zeuk Malagatik ekarri zenuen edo bertan sortu zaizu?

Hasieran enpresaren jarduerarekin erlazio gehiago zeukan lan bat pentsatu nuen, baina gero enpresarekiko independenteagoa zen lan bati ekin nion. Aukera gehiago ematen zizkidan ondo bukatzeko, lana beraien gain baldin bazegoen ez bainekien oso ondo zenbat denbora izango zuten proiektuari eskaintzeko. Horregatik erabaki nuen bide honi ekitea.

Zer aurkituko du zure lana ikustera datorrenak?

Erakusketak dirauen bitartean dena ondo badoa ur txorrotada bat joango da farolaren muturreraino. Ura farolara igoko da eta farola ura ikutzera jaitziko da, horregatik dago farola okertuta. Elementu eta materialen arteko elkargune baten modukoa da. Argia eta urarekin aldi berean lan egitea



“Leku honi indarra ematea pentsatu dut, elkartzearen kontzeptua indartuz”

berez arriskutsua da, baina hemen elkarrekin jarri ditugu. Hartze elektriko guzti-guztiak oso ondo estalita daude eta ez dago arriskurik ezer txarrik gertatzeko.

Lekua zeuk aukeratu zenuen?

Bai, Zumaiara etorri nintzen lehen aldian ikusi nuen tokia eta asko gustatu zitzaidan. Elkargune bat iruditu zitzaidan, gerturatzen diren bikoteena, jendearena eta baita naturako elementuena ere: lurra, airea eta ura bertan baitaude. Horretaz gain zumaiar asko bertara etortzen dira itsasoa nola dagoen ikustera. Leku honi indarra ematea pentsatu dut, elkartzearen kontzeptua indartuz.

Zer hobetuko zenuke antolakuntzan?

Iraupena batez ere. Enpresak askoz ere makalagoak dira artistak baino. Beraiek aurrekontu handiagoak dituzte eta jende askorekin egiten dute lan, erritmoa oso markatua dute. Gu artistok ia beti bakarrik aritzen gara eta horrek malgutasuna ematen digu, jarduera azkartu dezakegu behar baldin bada. Artistak lanean azkarrago eta malguago gara enpresak baino. Ez gaude burokraziara ohituta.

Ur txorrotadaren sistema jendea pasatakoan aktibatuko da.

Inpernupera datorren bisitariaren eta piezaren harteko elkartzea nolabait ere ur txorrotadarekin ospatzen da. Bisitariak ere zeregin aktiboa du hemen eta piezak erreakzionatu egiten du

Bagoi bat uztai gorriz

“ez nuen jarri nahi ezertarako balio ez duen tramankulutzar bat”

Zeuk ere hartu al duzu piezaren ekoizpenean?

Bai, hor ibili naiz saltsan. Pieza batzuk kanpora eskatu genituen eta beste batzuk bertan burutuak dira. Adibidez Beasaingo institutuko ikasleekin ere jardun dugu lanean, oso gustura jardun dute, ez zirelako ariketa normal bat egiten ari, beraientzako ere zerbait berezia zen. Nik berez beste proposamen bat egin nuen, baina azkenean ez genuen burutu denbora aldetik oso justu ibiliko ginelako. Garraio publiko batean sorturiko elkargune baten ideia ekarri nuen nik. Bilboko metroaren ikur diren hiru uztai gorriak jarri ditugu egitura-aren inguruan bagoi moduko bat sortuaz. Bagoi bilduada, baina ingurura irekia aldi berean.

CAF enpresarekin zer moduzko harremana izan duzu?

Oso ona, geneukan denbora hilabete eta erdi izan da eta oso harreman ona izan dugu, piezak berak hitzegiten du. Oso gertuko hizkuntzekin jardun dugu, nik ere arkitekturekin egiten baitut lan eta planoak ulertzeko orduan ez dugu arazorik izan. Enpresa prozesu batekin zerikusi handia duen proiektua aurkeztu nuen.

Besteekin alderatuz artelan erabilgarria dela esan dezakegu.

Bai, noski. Nik ez nuen jarri nahi ezertarako balio ez duen tramankulutzar bat. Pieza honek badauka bere



“Foro kontenporaneo baten islada da, ez bakarrik elkartzeko baita komunikatzeko ere”

karga kontzeptuala, baina aldi berean ikuslearekin interaktuatu nahi du, erabilgarria izan nahi du zerbaiterako. Bilgune edo foroaren ideiarekin jardun dut lanean, autobus edo bagoi baten barruan beste hiritarrek elkarbizitzen gara momentuoro. Foro kontenporaneo baten islada da, ez bakarrik elkartzeko baita komunikatzeko ere.

Garraibideak hartu dituzu oinarritzat beraz.

Bai, foro baten ideiaz gain mugimenduarena ere erakusten duelako. Gaur egungo kulturak eta nortasunak etengabeko mugimenduan daude, ez dira gelditzen. Iadanik ez dugu hainbeste kontutan hartzen ea eguzkian nondik irteten den edo ea euririk egiten duen, gure kultura ez dago espazio jakin bati lotua. Kultura garaikidea askoz ere elementu mugikorrageoi lotuagoa dagoela iruditzen zait. Mugimenduan dabilen bilgunea da hau.

Irakurgai dauden egunkariak egunero aldatuko al dituzte?

Bai, noski, antolakuntzak egunero aldatuko ditu egunkariak. Egunkariak jartzearena elkargune bat sortzearen ideitik dator, jendeak eseri, eguzkia hartu eta egunkaria irakurtzeko aukera izango zuen leku bat sortu nahi nuen. Azkenean eduki politikoa ere bada apur bat, ideia ezberdinen trukeari keinu bat egin nahi nion, eztabaidari, ideien mugimenduari.

Oikiako Kristoa

ISMAEL MANTEROLA

S. Bartolome parrokoiko erretaula nagusian dago Kristo gurutzean irudia.

Ez da erraza jakitea noizkoa den eta nondik nora ailegatu den Oikiako elizara irudi hau. Dakigun gauza bakarra da, ez dela erretaularen parte, lehen beste toki batean zegoelako eta elizaren azkeneko birmoldaketan jarri zutela gaur egun dagoen tokian, aldare nagusiaren gainean.

Irudia ondo begiratuta konturatuko gara besoak moztuta dituela edo mozketa baten arrastoa daukala sorbalda eta besoen artean. Aspaldiko ohitura zen aste santuko erritoetan Kristoren pasioa eszenifikatzea eta gurutzetik jaitea hil kutxan sartzeko ostegun santuan, gero hilobira eramateko prozesioan. Horregatik badirudi Kristo hau ere horrelakoetan erabili zutela.

Hala ere, irudi zaharra dela dirudi. XIV eta XV mendetan gotikoaren etorrerarekin, kristautasun sentikorragoa eta dramatikoagoa zabaldu zen Europa guztian. Sentimenduetara zuzenean jo nahi zuen elizaren dotrina berriak,



gurutzean iltzatutako Kristoren irudiak sufrimenduaren eredu bihurtu zituen. Kristok pasioan sufritu zuena ikusi eta sentitu behar zuen kristauak. Horregatik arteak behar berri horietara erantzun behar izan zuen irudi gogor eta dramatikoaren bidez. Berehala zabaldu ziren Europa guztian, Kristo gurutzean sufritzen irudikatzen zuten egurrezko irudiak, Kalbarioak

izena duten Kristo gurutzean Maria eta S. Joanen artean (Askizukoa adibidez) eta Pietatearen irudiak (semea hilda sostengatzen duen amaren mina).

Oikiako irudiak hau guztiaren jarraipena bada ere, zerbait beranduagokoa ematen du. Iparraldeko ereduak jarraitzen ditu, batez ere Flandes inguruan egiten ziren Kristoren irudienak, baina zuzenago eredu horiek jarraituta XV. mendearen bukaeran eta XVI. mendearen hasieran Iberiar Penintsulan egiten zirenak. Gorputzaren anatomia ihar xamarak, besoak ia horizontalean, bi hankak oso zuzenak ia paraleloan, zapia angelutsua eta arrantzazko koroa trentza moduan garai hartako kristoren antza handia du.

Gaiaren gogortasunak formaren gogortasunarekin bat egiten du guztia baita angelu zuzenen bidez egindakoa: lehen aipatutako zapi zuria, baina baita ile luzea eta bizarra. Beraz, gure aurrekoen bihotzak ikutzeko ondo pentsatutako irudi erlijiosoa da Oikiako elizan gordetzen dena.



Zoruen kutxilaketa eta barnizaketa
Parketa jartzea

Estazioko kalea, 12 Tel. 943 861412



- Depilaketa (beroa, epela)
- Minik egiten ez duen depilaketa elektrikoa
- Aurpegia edertzeko sendabideak
- Gorputza edertzeko sendabideak
- Lurrindegia
- Solarium-a

AR Ricardo J. Azcue Yeregui
Abokatua • Asegururak
Finika Administrazioa
txomin aguirre-4, beheko
20.750 zumaia (gipuzkoa)
E-mail: rajazcue@euskalnet.net
Tel. 943 862651
Fax. 943 862748

agenda

IRAILA

Larunbata 17 OLARRU EGUNA
Ostirala 23an: Aita Marin
22.00etan, Ballet Internacional
del Principado de Moldavia.

URRIA

Osteguna 6 ZINE FORUM SAIOA
Carta a una mujer desconocida
Igandea 9 KOTXERIK GABEKO
EGUNA
Haurrentzat parkea, lehiaketa,
bizikleta martxa, kale musika,
haur festa.

ANTZERKIA

Urriaren 16a Haur antzerkia
"TRAMANKULUAK"
Urriaren 14a 22.00etan TXALO "El
hombre de los dados"
Azaroaren 20a Haur antzerkia
12.00etan HANSEL ETA
GRETTEL - Haur Opera
Abenduaren 16a 22.00etan
KANPINGAGS "Shakespeare
Osoa"
Abenduaren 18a Haur antzerkia
HIRU TXERRIKUMEAK

ERAKUSKETAK


Irailaren 22tik urriaren 12ra
Txiki Keixeta - ARTADIKO
TAILERRA

IKASTAROAK

YOGA, TAI CHI, KOMIKIA,
PINTURA TAILERRA, ...
Informazioa kultur etxean.-

Keixetaren erakusketa

Zenbait urtetan
Zumaian bere lanak
erakutsi gabe egon
ondoren, Keixetak
irailaren 22tik urriaren
12ra erakusketa izango
du Oxford aretoan.
Artadiko tailerran
egindako lanak
erakutsiko ditu bertan.



Basadi Auzategia, 10 behea
Tel. 943 862051

**SUKALDEKO ALTZARIAK
ARMAIRU ENPOTRATUAK**



Auto-konponketak
ELKAR
Estazioko kalea Tel. 943 86 02 01



amaiako plaza, 2
Tel. 943 143278

Maite
ileapaindegia



ertz
informatika

tresna digi
internet
scanner

Eusebio Gurrutxaga, 6
Tel. 943 14 33 95

L
PRACTICAS

AUTO-ESKOLA

STOP

ZUMAI A

- Gida baimen guztiak ateratzeko baimendua
- Praktika eta azterketak Azpeitian
- GURE HELBURUA: Gidari trebe eta profesionalak egitea

Basadi, 12 behea Tel. 943 861018

ile-apaindegia

Maxi

Solarium

ETXEZARRETA, 9
TEL: 943 86 10 21

**taberna
JUSTA**

eguneroko bazkariak

Erribera kalea, 20

LEIZE
taberna

Juan Belmonte, 6

ileapaindegia

I Z E T A

Urumea, 6 Tel. 943 862083

- ▶ 9.00etan **DIANA** txistulariekin.
- ▶ 10.00etan egunaren hasiera ofiziala: **ALGORRI Ezagutza Etxean ate irekiak**. "Euskal Kostaldea" erakusketaren zabaltzea, akuarioak... Goizeko 10etatik 13.30era eta arratsaldeko 16.00etatik 19.30etara.
- ▶ 11.00etan bertako geologoaren eskutik **flyschera bisita gidatua**.
- ▶ Goiz partean **Argazki Rallya**. Izen ematea Inda Mendi Elkartearen 8.30etik 9.30era.
- ▶ 10.00etatik 13:00etara Gernikako parkean **haurrentzat ITSASO TAILERRA**. (arrantza jolasak, puzgarriak...)
- ▶ 11.00etatik 14.00etara Eusebio Gurrutxaga plazan, **Elikagaien azokatxoa eta hauek dastatzeko aukera**.

- ▶ 11.15ean **hamaiketakoa** Pulpo elkartearen olarru harrapatzaile jubilatuentzat.
- ▶ 12.00etan **SUGARRI** txarangaren **kalejirak**
- ▶ 12.00etatik 13.00 era Zumaiaiko tabernarien eskutik **olarrua dohainik tabernetan**.
- ▶ Eguerdian zehar, sukaldariak lanean frontoi txikian: **OLARRU-PATATA LEHIAKETA**, herriko elkarte gastronomikoen artean (10etatik - 13.30era).
- ▶ 12.30ean **BEHEKO PLAZA ABESBATZA**ren saioak herrian zehar.
- ▶ Eguerdian **trikitilariak herrian zehar**.
- ▶ 13.00ean **Olarru Zopa** dastagai Erribera Kalean
- ▶ 14.00etan **OLARRU-PATATA LEHIAKETA**ren **EPAIA** eta **SARIBANAKETA** Jarraian **Bazkari Herrikoia**.
- ▶ 17.00etan eta 18.00etan, **bisita gidatua txalupan** Algorrin zehar. Irteera Algorri Ezagutza Etxetik.
- ▶ 18.30ean **Folklore** jaialdia, Galizia eta Euskal Herriko dantzariak, Eusebio Gurrutxaga plazan.



olarru eguna

- ▶ 18.30etik aurrera Erribera kaleko txosnetan **olarru brotxetak eta sagardoa**.
- ▶ 19.00etan **KADUN KARAMA** perkusio taldea kalean zehar.
- ▶ Ordu berean, **SUGARRI** txarangaren saio berriak.
- ▶ 22.30ean berbena plazan, **LAIOTZ** taldearekin.



Alai sutzategia, 12 Tel: 943 86 02 58 ZUMAIA

Itzurun zuhaitz bidea, 1 Tel: 943 86 24 30 ZUMAIA



- Txarkuteria bikaina
- Inguruko baserrietako haragirik onena
- Geuk aurrez prestatutako jaki goxoak